

SOZIOKULTURALA

Haizea IZKO LEATXE

“ZIZUR NAGUSIKO GAZTE
KOMUNITATEAREKIN
EUSKARAREN EGOERA
AZTERTZEN”

TFG/*GBL* 2014

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Gizarte Laneko Gradua

Grado en Trabajo Social

Trabajo Fin de Grado
Gradu Bukaerako Lana

***“ZIZUR NAGUSIKO GAZTE
KOMUNITATEAREKIN EUSKARAREN
EGOERA AZTERTZEN***

Haizea IZKO LEATXE

FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEKIN FAKULTATEA

**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**

Estudiante / Ikaslea

Haizea IZKO LEATXE

Título / Izenburua

Zizur Nagusiko gazte komunitatearekin euskararen egoera aztertzen

Grado / Gradu

Grado en Trabajo Social / Gizarte Laneko Gradua

Centro / Ikastegia

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales / Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea
Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Director-a / Zuzendaria

Miren Zuria OLLO GORRITI

Departamento / Saila

Departamento de Trabajo Social / Gizarte Laneko Saila

Curso académico / Ikasturte akademikoa

2013/2014

Semestre / Seihilekoa

Primavera / Udaberrik

Laburpena

Ikerketa honekin lortu nahi dena Zizur Nagusiko gazteriari hurbiltzea da. Hurbilketa honekin, niri kezkatzen nauen arlo bat populazioarekin lantzea interesgarria den ezagutuko dut; Euskararen egoera. Zizur Nagusiko Gazteriarekin lan egiteko, gaztea 12-30 urte bitarteko pertsona oro den ulertuta, bai ikerketa kualitatibo bai kuantitatibo bat aurrera eramango ditut. Kontuan hartuta niri interesatzen zaidana komunitatearekin lan egitea dela eta ikerketa soziolingüistikoak garrantzi gutxiago daukala, ikerketa parte-hartzaile bat izango dela garrantzitsuena da. Pertsona hauen iritzien inguruan eta Udaletxearen euskarari buruzko eskaintzaren analisi baten bidez, gazteriari, bere identitatea lantzeko eta bere hizkuntzaz gozatzeko tresna ezberdinak erakutsiko dizkiet, hala nahi badute.

Hitz gakoak: Gizarte Lan Komunitarioa, Euskal kultura, Euskalduna eta Gaztaroa

Abstract

This project intends to move closer to the young population of the town of Zizur Mayor in order to be able to find out if it is interesting to work with this population a topic that concerns me, the situation of the Basque language. To work with the community of young people of Zizur Mayor, with the understanding that young refers to the age between 12 and 30 years, I'll make both a quantitative and qualitative research. Bearing in mind that I'm more interested in my work with the community and not so much to make a sociolinguistic study, I think that is most important is that done in a participatory manner. Through the opinion of these people and an analysis on the offer of the city hall in this area, giving to the young people of Zizur Mayor different tools to help them, and if they want to, enjoy their identity and language.

Keywords: Community Social Work, vasque culture, Euskaldun and Young people.

Resumen

Este proyecto tiene la intención de acercarse a la población joven de la localidad de Zizur Mayor para poder averiguar si es interesante trabajar con esta población un tema que a mí me preocupa, la situación del euskera. Para trabajar con la comunidad de personas jóvenes de Zizur Mayor, entendiendo que joven se refiere a la edad entre 12 y 30 años, realizaré tanto una investigación cuantitativa como cualitativa. Teniendo en cuenta que a mí me interesa más trabajar con la comunidad que realizar un estudio sociolingüístico lo más importante es que se hará de manera participativa. A través de la opinión de estas personas y de un análisis sobre la oferta del ayuntamiento en este ámbito, aportare a la gente joven de Zizur Mayor distintas herramientas para que puedan, si ellos quieren, disfrutar de su identidad y su idioma.

Palabras clave: Trabajo Social Comunitario, Cultura vasca, Euskaldun y Juventud

HITZ GAKOAK

Euskalduna: Nahiko subjektiboa da nor den euskaldun eta nor ez neurtzea. Batzuen ustez euskaraz hitz egiten ez dakiena ezin da euskalduna izan, beste batzuentzat euskal kultura berea egiten duenean, komunitatearen parte sentitzen denean euskalduna dela esan dezake naiz eta euskaraz hitz egiten ez dakien. Nire ustez euskalduntzat jotzeko baldintza ezberdin hauetatik; irakurmena, idazmena, ulermena eta hitz egitea, baten bat bete behar da. Normalean ulertzen eta hitz egiten ez dakien pertsonari, zaila egingo zaio irakurtzen eta idazten jakitea, horregatik, nire ustez hitz egitea eta ulertzea oinarritzko gaitasunak dira. Gerta daiteke euskaldun berri batek euskaraz ulertzea baina hitz egitea kostatzea edo euskal kultura berea egitea edo euskal

komunitatearen parte sentitzea, kasu horretan ez zen euskalduna izango, ia-euskalduna baizik.

Euskal kultura: Euskal Herriko kulturari deritzo, euskara hizkuntza kulturaren ama bezala eta gastronomia, bertsolaritza, dantzak eta Euskal Herrian ematen diren hainbat ohituraz osatua.

Gizarte lan Komunitarioa: Gizarte lan komunitarioak komunitateak dituzten arazo sozialak ulertzen laguntzen dituzte, bai eta arazo horiei konponbidea ematen laguntzen dute. Hau da, Gizarte lan komunitarioak komunitateari laguntzen dio, dituzten gauza positiboak nabarmentzen eta garatzen eta gauza negatiboak konpontzeko tresna emanez.

Gaztaroa: Soziologiatik zenbait ikuspuntu nabarmendu dira gazteria definitzerakoan. Batzuk trantsizio-aldia izatea nabarmentzen duten bitartean, beste zenbaitek itxaropena eta bizitza-aukera ezberdinak ematen dituen aro moduan azaltzen dute. Lausoa eta anitza izateaz gainera, estereotipoz kutsatutako kontzeptua da, maiz gazte guztiak gazte gutxi batzuekin identifikatzen baitira.

PALABRAS CLAVE:

Euskalduna: Es bastante subjetivo medir quien es euskaldun y quien no. Segun algunas personas, la persona que no sabe hablar en euskera no puede considerarse euskalduna, segun otras personas cuando una persona hace de la cultura vasca su propia cultura, con sentido de pertenencia a la comunidad, puede considerarse euskalduna pese a no saber el idioma. Segun mi punto de vista una persona puede considerarse euskalduna siempre que domine alguna de estas cuestiones: lectura, escritura, entendimiento y habla. Normalmente una persona que ni entiende y ni sabe hablar una lengua, se le hará difícil leer y escribir, por esta razón entender y saber hablar en el idioma son unas premisas fundamentales. Puede ocurrir que una “nueva euskalduna” entienda el euskera pero le cueste hablar, o que se considere a si misma como

euskalduna por adoptar la cultura vasca como propia y tienen sentido de pertenencia a la comunidad, en este caso, bajo mi criterio estas personas no serían euskaldunas sino casi euskaldunas.

Cultura vasca: Se denomina cultura vasca a la cultura que se vive en Euskal Herria, es decir, Navarra, Gipuzkoa, Vizcaya, Alava e Iparralde. En esta cultura el euskera es el idioma principal y como en cualquier otra cultura esta basada en diferentes costumbres, en este caso la gastronomía, los bertsos, las danzas etc.

Trabajo Social Comunitario: El Trabajo Social Comunitario ayuda a comprender los problemas que se generan en una comunidad y ayuda a encontrar una solución a estos problemas. Es decir, el Trabajo Social Comunitario ayuda a la comunidad, dando luz a las virtudes de la misma y generando herramientas para solucionar los defectos.

Juventud: Desde la Sociología se han subrayado distintos puntos de vista para definir este concepto. Mientras algunos lo definen como época de transición, otros lo definen como época de esperanza y de época en la que la vida te da distintas oportunidades. A pesar de esto es un concepto lleno de estereotipos ya que, en ocasiones, solo se identifica con algunas de las jóvenes.

AURKIBIDEA:

Sarrera.....1-3

I. Atala.....4- 24

1.1. Marko teorikoa.....4-13

1.1.1. Euskararen bilakaera historikoa.....4-7

1.1.2. Gizarte lan komunitarioa.....8-13

1.2. Metodologia.....14-24

2.2.1 Helburu eta hipotesiak.....14-16

2.2.2 Iker teknikak.....17-24

II. Atala.....25-90

2.1. Testuinguru geografiko eta kulturala.....25-40

2.2. Iker laneko datuak.....41-43

2.3. Teknika parte-hartzaileen emaitzak..... 44-90

III. Atala.....91-99

3.1. Ondorioak.....91-99

3.1.1. Datuen analisia.....91-95

3.1.2. Hipotesien balorapena.....95-97

3.2 Balorapena.....97-99

Bibliografia.....100-101

Gehigarriak.....102-111

SARRERA

3. Mailan Gizarte lan Komunitario ikasgaia izan nuen, hortik aurrera komunitatearekin lan egin nahi nuena ikusi nuen. Komunitatearen identitatea eta komunitatea nola garatzen de partaide izatea asko gustatzen zait, horregatik unibertsitatean egingo dudak azken lanak, lan profesionalena egia esanda, Gizarte lan komunitarioarekin zerikusia izango zuela argi nuen. Unibertsitateak honen inguruko lan bat egiteko aukera eman zidan eta aukera hartu nuen. Beste aldetik nire proiektua euskaraz izatea argi neukan, beti ere aukera izango banu, euskalduna bainaiz eta Gizarte laneko karreran zehar ez dut aukera anitzik izan euskaraz ikasteko. Gainera, nire promozioko ikasketa bukaerako lana euskaraz egin duen bakarra izan naiz. Badakigu euskarazko bibliografia gutxi dagoela, gutxienez gaztelerazkoa baino gutxiago, hori dela eta euskarazko dokumentu berri bat izatea erabaki nuen; nire lana.

Zorionez nire gaia ezagutzen zuen tutore euskaldun bat aukeratu ahal izan nuen, beraz kultura garapenaren inguruko lana egin ahal izan dut eta gainera lan hau euskaraz egitea lortu dut. Nire helburua kultura garapena zen, baina zein komunitatearekin lan egitea erabakitzea falta zitzaidan. Praktikak Zizur Nagusian egin ditudanez, hain zuzen Zizur Nagusiko Udalean, informazio ugari lortzea erraza izango zela ikusi nuen eta komunitatearekin kontaktuan jartzea baita ere erraza izango zela ikusi nuen, beraz, Zizur Nagusiko komunitatea aukeratu nuen. Nire praktiketan Zizur Nagusiko ikastetxeekin kontaktuan egon nintzen eta gaztetxea ezagutzen nuen, nire helburua populazio gaztearekin lan egitea zenez Zizur Nagusiko gazteriarekin lan egitea aukera hoberena iruditu zitzaidan.

Bukatzeko, nire lana kultura garapenaren inguruan izango zenez eta ni euskara bultzatu nahi nuenez, euskararen inguruan komunitate honetan nola zegoen ikertzea erabaki nuen, horrela nire gaiaren helburua lortu nuen: Euskararen egoera Zizur Nagusian ezagutzea eta komunitatearekin lehen

kontaktu bat izatea.

Gizarte Lanerako Aplikazioak

Nazioarteko Gizarte Lanaren Federazioak, Gizarte lanaren definizio hau proposatu zuen, gero Gizarte Laneko Nazioarteko Eskolen Elkarteak berea egingo zuena: “Gizarte laneko lanbideak aldaketa soziala sustatzen du, baita gizakien arteko erlazioen arazoak konpontzea eta herria indartzea eta askatzea ere, horrela ongizatea handituko baita. Gizakiaren jokaeraren eta sistema sozialen inguruko teorien bidez, gizarte lanak, pertsonak ingurugiroarekin elkarri eragiten dutenean, esku-hartzen du. Giza eskubideen printzipioak eta justizia sozialaren printzipioak ezinbestekoak dira Gizarte Lanerako.

Definizio hau irakurri eta gero nire lana Gizarte Lanaren muinarekin bat datorrela ziurta dezaket, emango ditudan arrazoiengatik batik bat:

Hasteko, nire lana Gizarte Lanerako erabilgarria izango da Gizarte Lan Komunitarioa zuzenduta dagoelako, eta metodologian esan bezala Gizarte lan Komunitarioa Gizarte Lan mota bat da. Nire lana beste pertsoneri laguntzea espero dut, bai laguntza teoriko moduan, bai komunitate honi hurbiltzeko, haiekin edozein gai lantzeko.

Beste alde batetik, esan beharra dago Gizarte Lan Komunitarioaren sormena edo izaerarako ez dagoela akordio bat. Escartinek (1998: 116) esaten duen moduan Gizarte Lan Komunitarioaren izaeraren inguruan debate bat dago: Batzuek Gizarte Lan komunitarioa ekintza politikoarekin zerikusirik ez duen aktibitate bat dela esaten dute, beste batzuek boluntario lanarengandik eta buruzagitzatik ezberdintzen den aktibitatea dela, ordea beste talde batek, lanbide espezifiko dela ziurtatzen du, soilik eragile sozialek aurrera eraman ahal izango dutenak, azkenik beste talde bat dago Gizarte lanaren alde bat dela

ziurtatzen dutenak. Payne M., (1995) beste ikuspegi bat dauka. Ikertzaile honek Gizarte lan komunitarioa esku-hartze praktikotik hartu behar dela esaten du, atal teorikoa alde batera utzi gabe, haren ustez Gizarte lan komunitarioa psikologikoa baino soziologikoagoa izan beharko zuelako, Gizarte lanaren beste atal batzuekin gertatzen den bezala, hala nola, gizabanakoekin, familiekin eta taldeekin egiten den lana.

Pertsona hauei erreparatuz, Gizarte lan Komunitarioaren inguruan zalantza asko daudela ikus dezakegu. Horren ondorioz nire lan honek teoria hauen erreflexio propioa ekarriko du. Nire lana Gizarte lanaren muinean oinarrituta dagoenez, nire ondorioak eta nire garapena zientzia honen inguruan dagoen informazioa, gutxienez, zabaltzen saiatuko da.

Azkenik nire lana kultura garapenari zuzenduta dagoenez, honek emango dituen erabilerak aipatu beharra dago. Nire lana martxan jartzearekin batera, Zizur Nagusiko gazteriak komunitatean lan egiten hasiko da, hau gizarte lanerako aurrera eramango dudana beste aplikazio bat izan daiteke. Komunitatea lanean hasiko da, ez nirekin, baizik eta nik komunitateari emango dizkiodan tresnekin. Denbora pasa ahala, lanean jarraitzen badute, Zizur Nagusiko kulturaren garapena lortuko dute. Gizarte laneko helburuak kontuan izanda, komunitate honen kultura garapena bultzatzea lortzen badut, hainbat helburu bete egingo ditut, gizarte lan komunitarioaren langilearen roleri erreferentzia eginez, komunitatean dauden arazoak komunitateari ezagutaraztea eta taldeen bidez lan egitea gizabanakoaren ongizatea hobetzeko.

I. ATALA: ATAL TEORIKOA ETA METODOLOGIA

1.1. MARKO TEORIKO

Nire ikerkuntza hasteko nire gaiaren ikerketa teoriko bat egitea ezinbestekoa da. Horrela nire gaia, euskararekin lotura daukanez, ikerketa modu egokiago batean aurrera eramateko euskara eta euskaldun zer den garbi geratzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Beste aldetik nire lana komunitarioa denez errepasso teoriko bat ematea ere garrantzitsua da.

1.1.1. EUSKARAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Zer da Euskara?

Euskararen inguruan informazio asko dago, kontuan izan behar dugu euskara hizkuntza, hizkuntza oso zaharra dela. Euskal gramatikariek hasiz, Larramendiren *El imposible vencido, Arte de la Lengua Bascongada* (1729), izan zen euskararen gainean idatzitako lehenbiziko gramatika. Ezinbestekoa da, Patxi Goenaga irakasleak 1980ko hamarkada hasieran atera zuen *Gramatika bideetan* izeneko liburua, eta Euskaltzaindiak ateratako *EGLU* izeneko liburukiak aipatzea, euskal gramatikaren inguruko liburua. Informazio hau Igartua, Iván & Zabaltza, Xabier: *Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A Brief History of the Basque Language*, Donostia: Etxepare Euskal Institutua, 2012. ISBN: 978-84-614-9752-2 liburutik hartu dut.

Lehenik eta behin euskara non hitz egiten den jakin behar dugu. Euskara Pirinioen mendebaleko bazterrean hitz egiten da, Espainia eta Frantziaren arteko mugaren bi aldeetan. Espainian, Euskadiko Autonomia Erkidegoan (hots, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko probintzietan) eta Nafarroako Foru Komunitatean (probintzia ere baden horretan) mintzatzen da, eskualdeen arabera hizkuntzaren zabalpenean diferentzia handiak daudela. Frantzian, bere

aldetik, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako antzinako probintzietan eta Zuberoaren ondoko Biarnoko haran batzuetan hitz egiten da, hots, Iparralde deritzona. Zazpi probintzia edo herrialde horiei *Euskal Herria* deritze euskaraz. Azken datuen arabera, 850.000 pertsona inguru dira Euskal Herri osoan euskaraz hitz egiten dutenak, maila ezberdinean, noski.



XX eta XXI. mendeak

Frantziaren eta Espainiaren eraikuntza nazionalen prozesuek baldintzatu dituzte euskararen bizia eta gaztelania eta frantsesarekiko harremanak azken bi mendeetan. Haien aurka, beste nazio bat gorputzeko saioa izan da: euskal nazioa, hain zuzen ere. Berezko hizkuntzaren egitekoa anbiguo samarra da abertzaletasunean.

Nazionalismo frantsesa eta espainola 1789ko iraultzaren oinordekoak dira (gehiago hura hau baino) eta “nazio bat, hizkuntza bat” dogma praktikara eramaten saiatu ziren. Euskal nazionalismo politikoa, neurri batean, Estatu espainol zentralizatuak buruturiko homogeneizazio instituzional eta kulturalaren kontrako erreakzio bat da eta oso berandu kokatu zen Ipar Euskal Herrian.

Hego Euskal Herrian, alfabetatzea (gaztelaniaz) klase aberatsentzat erreserbatutako pribilegio bat izan zen hasiera batean, klase horiek baitziren sortzen ari zen hezkuntza sisteman sartzeko aukera zuten bakarrak. XVIII. mendetik aurrera, Gipuzkoan eta Nafarroan euskararen erabilera eratzunaren

bidez zigortu izan da. 1969an oraindik Nafarroan erabiltzen zen eraztuna. Moyanoren legeak (1857tik 1970era bitarte indarrean egon zenak) nahitaezko lehen hezkuntza eta gaztelaniazko gramatikaren irakaskuntza ezarri zituen Espainia osoan. Baina, ordurako, Nafarroako erakundeek hamarkadak eginak zituzten gaztelaniazko nahitaezko irakaskuntza bultzatzen. 1860an, Hego Euskal Herriko bizilagunen ehuneko 63 analfabetoak ziren eta 1930ean ehuneko 27 ziren oraindik. Estatuaren ezgaitasunak berak esplikatzeko du euskal herritar askoren eskolatzerik eza. Euskararen galera erlatiboan, eskola baino eragingarriagoak izan ziren agian, alde batetik, komunikazioen hobekuntza, mugikortasuna erraztu zuena eta, bestetik, nahitaezko soldadutza, urte batzuk iraun ohi zuena. Erregimen Zaharrean, gizartearen estamentu-egiturak berak lagundua zion euskararen iraupenari, nahiz eta beti gaztelaniaren azpitik, egoera erabat diglosiko batean.

1917an, Arabako eta, bereziki, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek (Nafarroakoa berehala baztertu baitzen), Euskal Herriko Mankomunitatea sortzeko bidea urratu zuten. Garai hartan, kostako bi probintzietako diputazioetako administrazioan euskararen erabilera dokumentatzen da. Eusko Ikaskuntzaren (1918) eta Euskaltzaindiaren (1919) sorrera autonomiarako lehen prozesu honen zeharkako ondorioa izan zen.

1981ean, gutxi gorabehera, 596.000 euskaldun zeuden Euskal Herrian (bizilagunen %20,35) eta 102.000 Euskal Herritik kanpo. 120 urte lehenago, 1860an edo, 500.000 pertsonak zuten euskara hizkuntza nagusi gisa, hots, bizilagunen %55 inguruk. Beraz, 1860tik 1981era bitarte, euskaldun kopuruak iraun egin du eta, areago, bosten batean gehitu da. Baina, erlatiboki, haren proportzioa bi herenetan gutxitu da eta euskara alde txikiarekin euskal herritar gehienek hizkuntza izatetik gutxienek izatera pasa da.

UNESCOren arabera, euskara egoera ahulean dago Euskadin eta, bereziki, Nafarroan, eta arrisku handian Ipar Euskal Herrian.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, azken hamarkadetan, haren normalizaziorako aurrerapen ukaezinak egin dira. Hizkuntza ofiziala da, gaztelaniaren maila berean, teorian, behintzat, eta euskararen alde ia indar politiko guztien adostasuna bada, 1982ko Normalizazio Legean gauzatu zena. Gurasoen (euskaldun zein erdaldun) %59k beren seme-alaben irakaskuntzarako aukeratzen duten hizkuntza da (gainera, %23k eredu elebidun bat aukeratzen dute eta besteek, %18k, euskara ikasgai gisa). Unibertsitaterako, hedabideetarako (telebista barne, Euskal Telebista 1983az geroztik baitago antenan) eta teknologia berrietarako sarbidea bermaturik dauka. Gora doan kultura baten tresna da eta azken urteetan, adibidez, lau euskarazko idazleri eman zaie Espainiako Literaturaren Sari Nazionala: Bernardo Atxaga izan zen 1989an Espainiako Narratibaren Sari Nazionala irabazi zuen euskarazko idazlea. Haren iraupena, nahiz eta egoera ahul samar batean, bermaturik dago. Txanponaren aurkiarekin batera, ezin da ifrentzua ezkutatu. Jakite-maila gora doa, baino horrek ez du beti eraginik erabileran, oso mantso aurreratzen ari baita. Nafarroak, bere aldetik, Euskarari buruzko bere Legea dauka (1986), hiru hizkuntza eremu ezartzen dituena: euskalduna (non euskara ofiziala baita gaztelaniarekin batera), mistoa (estatus anbiguokoa) eta ez-euskalduna (non bakarrik gaztelania baita ofiziala). Euskadin ez bezala, Nafarroako gizartean ez dago adostasunik hizkuntzari buruz eta herritarrak zatiturik daude horri dagokionez. Euskaldun kopuruak pixka bat gora egin du, baina nafar askok ez dute begi onez ikusten euskara, uste baitute, epe luzera begira, Nafarroa Euskadin sartzeko tresna bat izan daitekeela. Are okerrago, Ipar Euskal Herrian, euskaldunak gero eta gutxiago dira eta berehala joera hori aldatzen ez bada, euskara arriskuan izanen da hizkuntza marjinal bihurtzeko, belaunaldi honetan berean.

1.1.2. TRABAJO SOCIAL COMUNITARIO

Para entender que es el trabajo social comunitario es importante atender a lo que dicen distintas teóricas en este ámbito. A través de la teoría del Trabajo Social Comunitario podré definir cuál será la metodología que llevaré a cabo en mi trabajo y podré llevar a cabo mi proyecto.

Visto que mi trabajo es un trabajo comunitario, centrado en el Trabajo Social Comunitario, me basaré en estas teorías para elaborar este trabajo, a través de autores como Twelvetrees, Rothmanen, Kisnerman, etc. desarrollare el concepto de comunidad y de trabajo Comunitario.

Concepto de Comunidad

Marchioni M., (1991) dice que la comunidad en cuanto a dimensiones funcional e institucional es el verdadero arranque de la intervención social que hay que realizar para atender mejor y de manera coordinada a una sociedad local con todos los recursos disponibles para incluir dentro de la acción social el concepto y la práctica de la planificación. Este autor define comunidad como un conjunto de personas que habitan en el mismo territorio con ciertos lazos y ciertos intereses comunes. La comunidad se compone de cuatro elementos: Territorio, Población, La demanda y Los recursos. La relación de estos elementos es de tal manera que se condicionan entre sí.

El territorio tiene gran importancia porque en él toman cuerpo una serie de realidades que determinan en parte las condiciones de vida y de trabajo. Con lo que respecta a la demanda se habla de la actual y de la futura. Habla de demanda explícita e implícita y de demanda objetiva y subjetiva. En cuanto a los recursos, los clasifica en privados y públicos, existentes y potenciales. Por último, conforme a la población, podemos decir que es un elemento

imprescindible a la hora de trabajar con las comunidades.

Según Lippitt R., Watson J., & Westley B., (1980) la comunidad podría definirse como un sistema dinámico que manifiesta un proceso continuo de cambio, adaptación, ajuste, maduración y crecimiento; cambios tanto internos como externos que pueden ser provocados o inducidos (planificados). La comunidad se compone de múltiples subpartes como la ciudadanía, grupos, organizaciones, estratos sociales y económicos.

Rezsóhazy, R.,(1988) nos habla de comunidad en base a tres características; El conjunto de personas que viven en un territorio determinado. El conjunto de personas que viven en ese territorio, con intereses comunes y que se relacionan entre ellos. Y los miembros de una comunidad que se identifican con ella a través de un sentimiento de pertenencia.

Los elementos importantes de la Comunidad son las personas que viven en un territorio común y su sentimiento de pertenencia. No hay que ver a la comunidad como un conglomerado sino que hay que tener en cuenta las interrelaciones que existen. Las personas que componen la comunidad comparten valores y se sienten pertenecientes a ella. En ocasiones hay intereses diferentes, pero es importante destacar que la existencia de la comunidad es posible si sus habitantes dan consentimiento a su existencia y establecen lazos personales entre ellos.

Batten T., (1984) nos dice que comunidad es un grupo social que se basa en las relaciones entre las personas. El grupo es importante en la comunidad, sobre todo los informales que hay que conocerlos. Estos grupos están basados en la amistad o costumbre y no tienen unas reglas definidas. Es probable que sus miembros se unan por intereses en común.

Para el profesional estos grupos presentan una dificultad porque se tarda más en conocer a sus miembros.

Kisnerman N., (1984) habla de Comunidad como sistema de relaciones sociales en un espacio definido, integrada a base de intereses y necesidades compartidas. Unidad social en un espacio geográfico tiene cuatro elementos: Espacio, personas, intereses e interacciones.

Una corriente del Trabajo Social Comunitario entiende el sentimiento de pertenencia la integración como elementos que deben existir. La otra, cree que la Comunidad ya existe y que el sentimiento de pertenencia se debe de trabajar dentro de la Comunidad. Todos los autores recogen los siguientes elementos importantes y esenciales; Las personas, el territorio y los intereses comunes.

Según Kisnerman N., (1984), para que exista Comunidad es necesario que haya un conjunto de personas en un espacio que interaccionen entre sí. La Comunidad no la delimita el espacio geográfico, ya que el espacio geográfico existe pero es difícil delimitarlo. Además, el espacio geográfico no es el único elemento que define la Comunidad puesto que, como hemos dicho antes, tanto las personas que forman la comunidad, como los intereses comunes que tienen, junto con el espacio geográfico, son los que forman la Comunidad.

Concepto de Trabajo Social Comunitario

Algunos autores hablan de organización de la Comunidad y otros de Desarrollo Comunitario; ambos se refieren a Trabajo Social con Comunidades.

La organización de la Comunidad:

El término se empezó a utilizar en EEUU y el Desarrollo Comunitario se utilizó para hablar del trabajo que se hacía con las Comunidades en países en vías de desarrollo. Durante un tiempo se mantuvieron los dos términos para hablar del Trabajo Social con Comunidades; después se dieron cuenta que en sociedades avanzadas también se daban zonas donde se requería el Desarrollo Comunitario por lo que al final se decidió usar para ambas actividades el término de Trabajo Social Comunitario. Hay momentos en que se ha considerado el Trabajo Social Comunitario como el método.

Tras la reconceptualización se habla de él como nivel de intervención. Es importante saber que el Trabajo Social Comunitario TSC constituye la respuesta a la pregunta de cómo el Trabajo Social puede ayudar a las Comunidades a comprender los problemas sociales existentes en su zona/comunidad y a dar soluciones para las mismas.

Trabajo Comunitario

Según la definición que obtenemos desde Naciones Unidas el trabajo Comunitario se basa en el desarrollo de la Comunidad, ya que este desarrollo es el proceso por el cual el propio pueblo participa en la planificación y en la realización de programas que se destinan a elevar su nivel de vida.

Desarrollo Comunitario como acción coordinada y sistemática que en respuesta a las necesidades o a la demanda social trata de organizar el progreso global (Rezsohazy, R., 1988).

La organización de la Comunidad es un proceso mediante el cual las Comunidades identifican sus necesidades, establecen un orden de prioridades y trabajan para satisfacerlas en cooperación (Ross, M., 1967). Es un proceso mediante el cual una Comunidad identifica sus necesidades y objetivos, ordena estas necesidades y objetivos, halla los recursos internos y externos para enfrentarse con ellos; actúa con respecto a los mismos, y al hacerlo así desarrolla en la comunidad actitudes cooperativas y colaboradoras. (Ross, M., 1967).

El desarrollo de la Comunidad es un proceso para suscitar grupos funcionales de ciudadanos capaces de ser los agentes activos de su propio progreso usando para ello, como medio, la investigación en común de los problemas locales y la solución de los mismos (Ware, C., 1954).

Para terminar con el concepto de Trabajo Social Comunitario, lo esencial es que se lleva a cabo una acción; siempre hay un proyecto que hacer, siempre se busca un objetivos que realizar por lo que se requiere una planificación. Por último, otro elemento importante del término es la planificación y la participación que implica la integración de la Comunidad en el proyecto que se va a llevar a cabo.

Una vez visto que entendemos por Trabajo Social Comunitario, es interesante indagar en lo que dicen los teóricos Twelvetrees y Rothman.

En cuanto a Twelvetrees A., (1988), defiende la escuela profesional y la escuela socialista. Este autor, subraya la importancia de la orientación filosófica a la hora de hablar del Trabajo Social, ya que esta orientación supone una visión diferente del mundo; una base teórica. A través de esta teoría llegamos hasta el Trabajo Social Comunitario, más concretamente a los objetivos y las estrategias que se crean a partir de este pensamiento. En cuanto a la escuela profesional, es una rama que da importancia a la ayuda

mutua que existe entre diferentes profesionales. Desde esta corriente interesa trabajar con la administración local antes que ir en su contra. Para poder llevar a cabo la ayuda mutua se basan en el Trabajo Social Comunitario. La escuela profesional piensa que la política es un tema importante a la hora de trabajar con la Comunidad, pero dado que no quieren que se les relacione con la política, dejan este tema a un lado a la hora de enfrentarse a los problemas que surgen en las Comunidades. Por otra parte, la escuela socialista tiene una visión más crítica. Según esta corriente el Trabajo Social Comunitario está relacionado con la lucha de clases, es decir, se utiliza esta forma de trabajo para conseguir una sociedad socialista. Por esta razón, los objetivos de esta escuela están dirigidos a despertar la conciencia de la Comunidad, así como de ayudar a las entidades sociales a conseguir poder.

Por otro lado, Rothman J., (2001) diferencia tres tipos de Trabajo Social Comunitario; el desarrollo social, la planificación social y la acción social. En cuanto al desarrollo social, este autor nos habla sobre que las sociedades pequeñas, de menos de 100.000 habitantes, están marginadas del resto de poblaciones más grandes. El objetivo general de esta corriente es ayudar a estas pequeñas sociedades a conseguir definir una identidad puesto que el mundo es diversidad y cada Comunidad tiene una identidad diferente. En cuanto a la acción social, según este autor, la profesional que trabaja con la comunidad tiene que ayudar, dirigiendo y facilitando los materiales necesarios a la comunidad. Al final será la comunidad, a través de sus acciones sociales la que definirá su identidad. Para acabar, la planificación social es la que recoge la planificación comunitaria del Trabajo Social clásico, por ejemplo la educación o la vivienda.

1.2. IKERKETAREN HELBURUAK

Proiektu hau hasi baino lehen, lehenik eta behin helburuak zeintzuk diren argi geratu behar dira, proiektua definitu ahal izateko eta noraino ikertu nahi duzun zehazteko, bestela gerta liteke proiektu bideraezina suertatzea. Nire proiektuaren helburuak bi ataletan banatu ditut; alde batetik helburu nagusia, zer egin nahi dudan erantzuten eta bestetik helburu zehatzak, helburu nagusitik bideratuak.

OBJETIVOS PRINCIPALES

- Conocer cuál es la situación del euskara en la población de Zizur Mayor, teniendo en cuenta tanto a personas esukaldunas como a no esukaldunas.
- Conocer la comunidad de jóvenes de Zizur Mayor.

OBJETIVOS ESPECIFICOS

- Descubrir si dentro de la familia existen factores que ayudan a integrar el euskera o a dejarlo de lado.
- Trabajar desde la perspectiva de Género.
- Poner en prácticas as técnicas del Trabajo Social Comunitario en la comunidad de Zizur Mayor.
- Conocer las distintas acciones que se llevan a cabo en Zizur Mayor para potenciar el euskera.

- Conocer la situación del euskera en el Ayuntamiento de Zizur Mayor.
- Conocer la oferta y la demanda de los medios de comunicación en euskera.

1.3. HIPOTESIAK

Ikerkuntza baten prozesuan hipotesiak oso garrantzitsuak dira, arazoaren formulazioan laguntzeaz gain helburuen zehaztapena ere errazten baitute. Aztertu beharreko arazoa erraz eta zehaztasunez ezartzen denean, hipotesia ezartzeko unea dator. Hipotesia ikertu nahi den fenomenoaren inguruko suposizioa da, ziurra ez baina ustezko esplikazio edo deskribapena ematen duena. Nire ikerketan hauek dira eraiki ditudan hipotesiak:

- 1- Pertsona heldu gehiagok euskara erabiltzen dutela gazteekin konparatuz ikustea espero dugu, nahiz eta heldu askok hitz egiten ez jakin.
- 2- Euskalduntzat jotzen duen jende asko dagoela ikustea espero dugu, nahiz eta euskara hitz egiten ez dakien. Hau gerta daiteke txikiak zirenean, eskolara joatean gazteleraz ikasten zutelako, Frankoren garaian edo trantsizio garaian zeudelako eta euskaraz ikastea debekatua baitzegoen.
- 3- D ereduko matrikulazioak gora doala ikustea espero dugu, hala eta guztiz ere, euskaraz hitz egiten ez dakitenen artean gazteleraz komunikatzen direla uste dugu.

- 4- Euskararen erabileraren inguruan genero bereizketa ez dela egongo uste dugu, ez erabiltzearen arazoa generoarekin zerikusirik ez duela pentsatzen dugu.
- 5- Pertsona gazteak euskarazko komunikabide gehiago erabiliko dituztela ikustea espero dugu, uste baitugu sare sozialetan euskarazko komunikabide aldaera gehiago daudela eta gazteak komunikabide hauek gehiago erabiltzen dituztela.
- 6- Gizonen rol generoa kontuan izanda, gizonak, euskara oztopatzeko orduan, gobernuko erakundeak egiten dituzten ekintzei garrantzi gehiago ematen dietela aurkituko dugu
- 7- Herritar guztiak kontuan hartuta, euskara erabiltzen ez duten gazte gehiago egongo dira erabiltzen dutenak baino egongo direla uste dugu.
- 8- Gazteak gizartean sartzeko hainbat aldaketa egingo dituztela, haien artean euskararekin zerikusiak dutenak, uste dugu.
- 9- Gazteen artean komunitatean lan egiteko gogo gehiago izango dituztela uste dugu, populazioaren talde honek gehiago parte-hartzen duelako.

1.4. METODOLOGIA

Edozein lan egiterako orduan, zein metodologia erabili behar den zehaztu beharra dago. Harluxet, eusko jaurlaritzako hiztegi entziklopedikoak, horrela definitzen du metodologia: Zientzia, arte edota diziplina batek erabiltzen dituen metodo, prozedura, arau eta postulatuen multzoa.

Nire kasuan, nire proiektua gizarte lanera zuzenduta dagoenez, nahiz eta kultura garapenaren gaiaren barruko ikerketa bat izan baita ere Zizur Nagusiko komunitateari egindako esku-hartzea ere izango da. Horrela izatea erabaki dut, nahiz eta nire proiektu datu kuantitatiboak izan, eta objetibotasun atala izan, beste atal bat duelako. Beste atal hau alde subjektibora zuzenduta dago eta nire proiektuan garrantzi handiagoa du, atal hau datu kualitatiboak lortzeko, komunitatean egingo ditudan ekintza ezberdinei erreferentzia egiten dio.

Aipatu berri dudaren harira, proiektu hau aurrera eramateko erabiliko dudana metodologia, lehen esan bezala, gizarte lan komunitarioa izango da, eta metodologia honek erabiltzen duen teknika garrantzitsuena erabiliko dut; teknika parte-hartzailea, Gizarte lan komunitariotik lan hau bideratuko dudalako. Zizur Nagusiko gazte komunitateari zuzendu naiz, baina haiei nire proiektuaren partaide eginez. Hau lortzeko bi ekintza ezberdin aurrera eraman ditut; talde biltzarra eta inkesta. Bi tresna hauen bidez gazteek bere burua argi eta garbi azaldu ahalko dira eta haien ustez euskararen egoera Zizur Nagusian azaldu ahalko dute. Talde biltzarraren bidez nik udalaren euskara eskaintza zein den azalduko diet, eta honekin nire lana hasiko dut. Zizur Nagusiko gazteriarengana hurbilduko naiz eta euskararen egoera nolakoa den ezagutuko dut.

Garrantzitsua da esatea nire proiektua genero ikuspegiarekin eginda dagoela esatea, generoa eremu guztiei eragiten dion zeharkako gaia dela uste dudalako eta edozein lan egiterako momentuan, kontuan izan behar dugun

gaia dela uste dudalako. Emakume eta gizonen arteko rol ezberdintasunak kontuan izatea garrantzitsua da, haien artean nola erlazionatzen diren, edo zergatik emakumeak modu batez jokatzeko duen eta gizonak beste modu batez hobe ulertuko dugulako.

Puntu guzti hauek kontuan izanda, nire proiektua garatzeko erabili ditudan teknika parte hartzaileen inguruan hitz egitea ezinbestekoa iruditzen zait.

1.4.1. IKERKETA TEKNIKA PARTEHARTZAILEAK:

INKESTA:

Lehen mailako informazioa lortzeko gehien erabiltzen den teknika kuantitatiboa *inkesta* da. Ikerketa gehienek inkesta erabili ohi dute oinarritzko teknika gisa eta beste teknika batzuetara (kualitatiboak, behaketak, bigarren mailako iturrien analisia, eta abar) jotzen dute inkestan lortutako emaitzen azterketa egiteko eta diseinu metodologikorako erabilgarria den informazio gehigarria lortzeko. Inkestaren abantailarik garrantzitsuena da epe laburrean informazio ugari lortzeko aukera da (jarrerak, iritziak, jokabideak, estrategia komertzialen aurrean erreakzioak, kontsumitzaile edo bezeroen ezaugarriak, eta abar). Metodo honek duen beste abantaila bat bere malgutasuna da; izan ere, edozein pertsonari edo pertsona-talderi aplikatu dakioke haren ezaugarri kultural, sozial, ekonomiko, demografikoak... edozein izanda ere.

Beste aldetik inkestaren desabantailak aipatzea interesgarri iruditzen zait, hauek dira inkestak dituen desabantailak; informazioa lortzeko prozesua nahiko motela da eta lan astuna da, informazioa lortzea asko kostatzen baita.

Nire kasuan, inkesta 2 modutan egin dut; *inkesta pertsonala eta posta elektronikoko bidezko inkesta*. Metodo bakoitzak abantailak eta desabantailak ditu, baina nire proiektuari zuzenduta bi aukerak egokiak direla uste dut. Bai euskaraz eta bai gazteleraz ere, euskararen egoera erreala ikusi ahal izateko.

Hasteko, inkesta pertsonala, galdeketa zuzen eta aurrez aurrekoa izaten da inkestagilearen eta inkestatua izan behar den pertsonaren artean. Galdeketa pertsonalean, inkestagilearen itxura, ezaugarri eta trebetasunak erabakigarriak dira, bere nortasuna argi utzi behar baitu. Nire kasuan inkesta kanpoan egitea erabaki nuen, kasu honetan, nire inkestaren galderak motzak eta zehatzak direlako, eta kalean eginda, inkestatu gehiago lor ditzakedalako emaitza errealagoak lortu ahal izateko.

Hainbat abantaila daude inkesta pertsonalean; lehenengo, *jasotako erantzun-kopurua altua da*, ikerketaren helburuak ongi finkatzen badira eta bigarren, *akats gutxiago* izango dituzte eta hutsegiteak ere urriagoak izango dira nire aholku zuzenarengatik, hau da, inkestatuek zerbait ez ulertzean nire laguntza azaltzeko izango dutelako.

Posta elektronikoko bidezko galdeketa, inkesta, posta bidez bidaltzean datza, inkestatuek betetzeko konpromisoa hartu beharko dute eta bide berdina erabiliz itzuli. Inkesta honek dituen abantailarik garrantzitsuenak/aipagarrienak bi dira; hala ere, nire ustez abantailak asko direnez, inkesta mota hau egitea erabaki dut. Alde batetik inkesta mota honekin edozein gizabanakora ailega zaitezke, horrela lortuko den informazioa aberatsagoa izanen da. Bestetik, posta elektronikoko bidezko inkesta ez da momentuan egin behar, hau da, inkestatuek egiteko denbora har dezakete eta erantzunak ondo pentsa ditzakete, ondorioz, emaitzen kalitatea handituz. Horrela bada, inkesta mota hau inkesta pertsonalaren euskarri egokia dela uste dut.

Nire galdetegia 33 galderaz osatuta dago, galdera hauek guztiak Zizur nagusiko euskararen egoera irudikatzen dute. Nahiz eta inkestaren gai nagusia euskararen egoera izan, galdetegi honetan beste gai batzuk jorratzen dira; genero ezberdintasuna euskara mantentzerako orduan, familiak ematen duen hezkuntza, Udalak egiten duen lana eta haien arteko harremanak. Hizkuntza baten egoera aztertzeko gai hauen guztien inguruan hitz egitea ezinbestekoa dela pentsatzen dut. Jakin behar dugu kultura gizarte batean dauden gizabanakoak eta haien historiak osatzen dutela, eta haien sinesmen eta erlazioak zehazten dutela, horregatik gai hauek jorratzea derrigorrezkoa dela uste dut.

Inkestaren atala bukatzeko inkestatuen adin tartearen inguruan hitz egin beharra daukat. Inkestatuak 12-30 urte tarteko gazteak izango dira. Erabaki hau hartzeko hainbat arrazoi izan ditut; hasteko inkestak egiteko talde erraza da, normalean elkarrekin egoten dira, eta haien lekuetan sartuz inkesta multzo bat egin dezaket aldi batean. Beste aldetik adin tarte honetan, gazteek euren identitatea finkatzen hasten dute. Talde hau definitzeko hitza bihurkeria da, gustatzen ez zaiena aldatzeko gogoak izatea, mintzatzerako orduan, ezin diren gauzak existitzen direlaren jakintza ez izatea, edo jakintza izatea baina berdin izatea dakar. Honek inkestaren erantzunak benetakoak izatea dakar, eta honen ondorioz, emaitzak errealagoak izatea. Azkenik, adin tarte honekin lan egitea interesgarria egiten zait, pertsona gazteekin lan egitea gustatzen zaidalako eta karreran zehar izan dudana aukera guztietan adin tarte honekin lan egin dudalako. Gainera aukera polita iruditzen zait talde honen inguruan ikerketa bat egitea karrera bukatzeko eta nire profesiorako sarrera moduan.

Bukatzeko inkestan lortuko ditudan datuak, hipotesiak egiaztatzeko balioko dute, gainera sexu eta adina aldagarriekin konparatu ahal izango ditut.

Lagina

Ikerketa honen lagina 103 inkestaz osatuta dago, aurreko alditan adierazi dudan bezala pertsona gazteei egina. Hauetako 62, gaztetxeetan utzi genituen, hau da posta bidezko inkestak izan ziren, beste 41 inkestak inkesta pertsonalak izan ziren, Gaztetxean egin baitziren. Gazteen artean mugimendu soziala ugariagoa da, hau da, gazteak izaten oi dira komunitateari ekintzak prestatzen dituztenak. Nire helburua komunitate batera hurbiltzea, komunitate hori bere kabuz garatzeko da, hori kontuan hartuz, gazteen artean inkesta pasatzea erabaki dut. Zizur Nagusiko Udalean agertzen den bezala gaztea 12-30 urte bitarteko pertsona oro kontutan hartu dut, gainera euskaraz eta gazteleraz pasatu ditut inkestak gazteriaren lagin oso bat lortzeko.

Inkestaren helburuak eta hipotesiak finkatu ondoren, inkestaren galderak antolatzearen unea da. Inkestaren helburuak betetzeko, inkesta 6 atal ezberdinetan banatu dut, horrela analisisa egiterako momentuan emaitzak argiago ikusi ahal izango ditut eta, halaber, lehen aurkeztutako hipotesiekin egingo dudan konparaketa errazagoa izango da.

Inkestaren lehengo zatia datu objektiboei egiten die erreferentzia, sexua, adina eta ikasketak non egin dituzten, datu hauekin Zizur Nagusiko parte-hartzaileen datuak lor ditzaket eta horrela, etorkizunean haiekin lan egiteko, herriarekin lan egin nahi duten pertsonen profila ezagutuko dut. Inkestaren bigarren atala, haien hizkuntzari egiten dio erreferentzia, bai haien lehen hizkuntza, bai haien gurasoena ere. Atal honetan ikusiko dut zenbat euskaldun dauden eta gurasoekin konparatuz euskara garatu edo geldiarazi den. Inkestaren 3. fasean hizkuntzaren, euskara eta gazteleraren, erabileraren inguruan erlazonatutako galderak egingo ditut, euskaldunen artean zenbat euskara hitz egiten den ikusi ahal izateko. Beste aldetik, laugarren partean Zizur Nagusiko populazioak euskararekiko daukan jarrera aztertzen saiatuko naiz,

horretarako kalean zein hizkuntza entzuten duten edo euskaraz komunikatzea posible den galdetuko diet. Inkestaren 5. zatia Udalari erreferentzia egiten dio, udalak euskararen inguruan bultzatzen dituen ekintzen ezagutzaren inguruan edo egiten duen lana aski den edo ez. Bukatzeko azkeneko atala komunikabideei erreferentzia egiten dio, ze hizkuntzatan maneiatzen diren eta euskara mantentzen laguntzen duten edo ez. Lortuko ditudan datuak hipotesiak egiaztatzeko balioko dute, gainera sexu eta adina aldagarriekin konparatu ahal izango ditut.

BEHAKETA

Behaketa gizabanakoen edo elementu-talde baten jarrera eta ezaugarriei buruzko informazioa jasotzea ahalbidetzen duen teknika bat da. Informazioa biltzeko ez dago komunikazio-prozesurik behatzailearen eta behatua izan behar duen pertsonaren artean. Ondorioz, ez da bere lankidetzarik behar, beste ikerketa-tekniketan gertatzen ez den bezala. Tradizionalki, behaketa beste ikerketa-teknika batzuen osagarria izan da eta helburutzat, lortutako emaitzak zabaltzea eta aberastea izan du.

Esan beharra dago behaketaren bidez, Udaleko langileen jokabidea beha dezakedala, beraien arteko harremana edo lan-giroa aztertuz. Ikus dezaket zerbitzu bat eskatzen duen kontsumitzailearen profila ere ikus dezaket. Adibidez, kultura-bulego erabiltzaileen sexua, adina, ordutegia, erabiltzaile-mota edo ordainketa-modua.

Honekin, nire behaketa Behaketa ez-egituratua izango da, informala izango delako. Oro har, behaketa mota hau hipotesiak garatu edo arazo bat hobeto formulatu ahal izateko erabiltzen da, nire ikerketa kontuan izanda, behaketa ez-egituratua aukera hoberena dela uste dut. Behaketa artifiziala izango da, nik, begirale moduan, testuinguruan parte hartuko dudalako, hórrela eraginkortasun handiagoa lortzen baita. Behaketa ezkutukoa edo estalia izango

da, behatuek aztertuak izan behar dutela jakingo balute modu ezberdin batean jokatuko luketela pentsatzen dudalako. Azkenik Behaketa zuzena izango da, errealitatea bitartekotzarik gabe aztertuko baitut.

Hau guztia dela eta, nik Zizur Nagusiko Udalean praktikak egiten ditudanez, informazio biketa hau oso aproposa iruditzen zait, egunero Udalean egoten bainaiz eta behaketaren bidez informazio kualitatibo asko lor dezaket nire aurrean langileak eroso sentitzen direlako. Behaketak 3 hilabete irautea erabaki nuen, denbora hau izango baita praktiketan egongo naizena, martxoak 1etik maiatzaren 31raino.

TALDE BILTZARRA

Hasteko, garrantzitsua iruditzen zait Gaztetxeak, zizur Nagusiko Zerbitzu Sozialen programak, izan duen jarrera eskertzea. Nire lana aurrera eramateko gela bat utzi zigun, horrela, bertan elkartu eta talde biltzarra egin genuen. Gaztetxeak eramaten duen pertsonari esker, talde honetan parte hartu zuten pertsonentzat giro eroso eta seguru bat lortu nuen, gaztetxea eta bere gelak ezagutzen baitituzte eta bere eremutat hartzen baitituzte. Honek konfiantza espazioa lortzeko asko lagundu zuen, bertan, parte-hartzaileak erlaxatu ziren eta bere ikuspuntua eman zuten eta, hortaz, esaldi eta ikuspuntu oso interesgarriak atera ziren.

5 pertsoenez osatu zen taldea, ordu batez. Bilera honen helburua nire ikerketaren inguruan, euskararen egoera Zizur Nagusian, datu kualitatiboak, lortzea da. Taldea 3 emakume eta 3 gizonez osatuta egotea zen nire helburua, honen arrazoia, lehen esan dudana bezala, genero ikuspuntuarekin lan egin dudala da, horregatik taldea emakume eta gizon kopuru berdina izatea aukera hoberena dela pentsatzen dut. Hala eta guztiz ere, soilik 3 neska eta 2 mutil lortu nituen.

Taldearen adina ere ongi pentsatu nuen, 18-23 urte. Zizur Nagusiko demografia aztertzean, gazte gehiago zegoela ikusi nuen beste sektoreekin konparatuz. Horregatik adin tarte honekin lan egitea hobereena izango zela pentsatu dut, errazagoa izango baitzen jendea lortzea. Gainera, esan beharra dago, soilik pertsona gazteak izanda, errazago izango litzatekeela haien arteko komunikazioa giro erosoago bat lortuko baikenuke.

Biltzar honekin lortu nahi dudana gazteen gogoeta eta eztabaida sustatzea da, arrazoi honengatik nire papera, ia beti, begirale moduan egotea izan zen, baina hasieran elkarrizketa sortarazteko galdera bat botako nien eta haien arteko elkarrizketa entzuten geratuko nintzen. Soilik isilune handietan parte hartzeko intentzioa nuen, hau da, haien arteko elkarrizketa bukatzean eta ezer gehiagorik esateko ez zutenean, beste galderaren bat botako nien eztabaida berriz pizteko.

Lehenik eta behin pertsona guztiak biltzean zein den nire helburua azaldu nien, eta segidan, argi utzi nien bilera hau ez zela froga bat, hau da, esango zuten guztia ongi egongo dela argi utzi nien, nik soilik haien artean euskara gaiarekin nola erlazionatzen diren ikusi nahi nuela. Beti ere esanez errespetu faltak ez zirela onartuko espazio honetan.

Hasieran galdera hau bota nuen: Zuen ustez, zein da euskararen egoera Zizur nagusian?. Bestetik, isiluneak gainditzeko galdera sorta bat prestatuta neukan, erreserba moduan;

- Nafarroarekin konparatuz, ezberdina da egoera?
- Gustatuko litzaizueke kalean (dendetan, tabernetan) euskaraz komunikatzea?
- Zerbait egiten duzue euskara sustatzeko?

II. ATALA: IKERKETA

2.1. ZIZUR NAGUSIKO DESKRIBAPENA

Hasteko, Zizur Nagusi non dagoen ezagutzea oinarrizkoa da, horretarako, añaamendi entziklopediara jo dut. Zizur nagusia Nafarroako udalerrria da. Iruñerriko eskualdearen hego-mendebaldean kokaturik, Zizur Nagusia Iruñeko merindadearen barnean dago. 2013ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera, herriak 14120 biztanle zituen.

Zizur Nagusiak 5,6 kilometroko azalera dauka eta Iruñetik bost kilometrora dago. Herriak Oltzarekin, Iruñearekin eta Barañainekin egiten du muga iparraldean, Zizur Zendearekin mendebaldean, eta Galar Zendearekin hegoalde eta ekialdean.


Zizur Nagusiak honako auzoak ditu:

- Zizur Nagusiko Alde Zaharra
- Zizur Auzo berria
- Ardoi Auzo berria (eraikitze prozesuan)

Zizur Nagusia gaur ezartzen den lurretan orain dela ehunka urtetako aztarnak topatu dira baina adituek ez dakite noiztik bizi izan den jendea toki horretan. Guztira bostehun pieza inguru aurkitu dira, Gatzolatzen, Baternainen, eta Orkoienen, besteak beste. Zizur izena 1087. urteko dokumentu batean azaltzen da lehen aldiz. Hasieran, Zizur herrixka txiki bat zen, eliza xume baten inguruan eratua.

Bestetik, Zizurko demografia ikertzeko INE web orrira zuzendu naiz, bertan hiri eta herri ezberdinetako, Nafarroako informazio demografikoa ere ageri da. Web orri hau estatu mailan egiten da, hau da, estatu guztian dauden hiri eta herri ezberdinen informazioa ematen du.

Zizur Nagusiko 2013ko demografiaren grafikoa:



2013ko Zizur Nagusiko taula sexu eta adinaren arabera:

Población de ZIZUR MAYOR/ZIZUR NAGUSIA por sexo y edad 2013 (grupos quinquenales)			
EDAD	HOMBRES	MUJERES	TOTAL
0-4	361	351	712
5-9	455	450	905
10-14	611	569	1.180
15-19	516	503	1.019
20-24	415	412	827
25-29	433	430	863
30-34	565	548	1.113
35-39	479	496	975
40-44	555	637	1.192
45-49	682	746	1.428
50-54	554	610	1.164
55-59	492	516	1.008
60-64	401	326	727
65-69	208	201	409
70-74	99	89	188
75-79	57	103	160

80-84	46	81	127
85-	41	82	123
TOTAL	6.970	7.150	14.120

Iturria: INE, FORO-CIUDAD.COMek egindako grafikoa

Ikusten dugun moduan Zizur Nagusiko populazioaren alderik handiena 30-60 urte bitarteko zerrendan kokatzen da, hau da, helduaroan. 10-20 urte bitarteko adin tartearen portzentajea ere garrantzitsua da pisu handia baitu. 3. adineko adin tartea, ordea, ez da oso esanguratsua portzentaje txikiena baitu. Datu hauekin hipotesi bat atera dezakegu; Zizur Nagusiko familia unitate gehienak seme-alaba nerabeak dituzten gurasoak osatzen dituzte.

Udaletik demografia ikerketa hileroko egiten dute, beraz datu oso berriak eskuragarri izan ditut udalaren bidez, hain zuzen ere 2014ko maiatzaren datuak. Horrela iazko datuak konparatu ahal izan ditut:

ADINAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
0-5 URTE	374	349	723
6-10 URTE	421	429	850
11-15 URTE	588	556	1144
16-20 URTE	549	530	1079
21-25 URTE	423	415	838
26-30 URTE	425	421	846
31-35 URTE	580	567	1147

36-40 URTE	531	502	1033
41-45 URTE	504	585	1089
46-50 URTE	671	761	1432
51-55 URTE	596	609	1205
56-60 URTE	495	543	1038
61-65 URTE	413	352	765
66-70 URTE	232	230	462
71-75 URTE	123	110	233
76-80 URTE	60	92	152
81-85 URTE	42	79	121
86-90 URTE	34	67	101
91-95 URTE	7	23	30
96-100 URTE	3	7	10
GUZTIRA	7071	7227	14298

Zizur Nagusiko demografia ikusita, euskaldunen portzentajea ikertzearen txanda da. Datu hau lortzea ez da erraza izan, honen inguruko ikerketarik ez dagoelako. Udaleko euskara sailaren teknikariarekin elkarrizketa izan arren datu hori ez zeukatela esan zidan, euskal hiztunen inguruan ezin zirela datu kuantitatibo errealak jaso, 2001etik ikerketa hau egiteari utzi baitzen. Beraz datu berrituenak 2001ekoak dira, duela 13 urte. Hori horrela dela eta 2001eko datuak jarriko ditut, baina esan beharra dago datu hauek ez dutela gaur egungo egoera erreala irudikatzen.

2001eko datuak Nafarroako Gobernuak egindako populazio-zentsutik aterata daude. Hiru azterketa soziolinguistiko egin zituzten; alde batetik euskararen ezagupenari buruzko azterketa, bestetik euskararen erabilpenari buruzko azterketa eta azkenik euskararen inguruko jarrera eta iritziei buruzko azterketa. Euskararen ezagupenaren azterketaren inguruan, 3 aldetan banatzen dira; euskaldunak eta ia-euskaldunak, lehen definitu dudak bezala. Zizur Nagusiko euskaldunen kopurua 2001ean ere 3 aldetan banatzen da; euskaldun alfabetatuak, %9,55, euskaldun partzialki alfabetatuak, %1,26 eta euskaldun alfabetatu gabeak, %0,64. Guztira, 2001ean, Zizur Nagusiko euskaldun kopurua %11,45a zen, 1274 biztanle. Ia-euskaldunen artean, zatitzaile orduan, 3tan ere egiten da; ia-euskaldun alfabetatuak %8,17a osatzen dute, ia-euskaldun alfabetatu gabeak %5,47 eta ia-euskaldun pasiboak %0,20. Guztira ia-euskaldunen kopurua %13,84a osatzen zuten, hau da, 1539 biztanle.

2.2. EUSKAL HEZKUNTZA ZIZURREN

Nire kasuan, eta euskaldunen datu kuantitatiboak jasotzea ezinezkoa dela ikusita, D ereduako matrikulazioak ikusita ikasle euskaldunen portzentajea ikustea erabaki dut. Esan beharra dago datu hauek ez direla populazio osoa, soilik ikasleena baizik, 5-18 urte bitarteko pertsonak sartuta daude. Hipotesietan esan bezala, ikerketa hau populazio osoarekin egin banu, portzentajea baxuagoa izango zen, heldu askok euskara ez dakitela uste dudalako.

Zizur Nagusiko ikasle euskal hiztunen kopurua jakiteko, lehen esan bezala, ikasleen matrikulaziora jo dut, bai d ereduako matrikulazioari, baita A eta G matrikulaziora ere. Horretarako Zizur Nagusian dauden ikastetxe guztien web orrian sartu naiz eta ikasle kopurua bilatu dut. Ikasturte ezberdinetan zenbat ikasle zeuden aipatzen zuen, hori oso lagungarri egin zait gero aipatuko dudak ondorioetako bat ateratzeko.

Hasteko Zizur Nagusian, lehen mailako 3 ikastetxe daude, bata D eredu eskaintzen duena eta beste biek A eredukoak, hau da, euskara soilik hautazko ikasgaia bezala eskaintzen dutenak. Erreniega Ikastola publikoa da, eta taula honen bidez ikastetxe honen 2013/2014ko matrikulazioa azalduko dut:

ERRENIAGA IP 2013/2014	
3 urte	36 ikasle
4 urte	33 ikasle
5 urte	52 ikasle
1. maila	41 ikasle
2. maila	41 ikasle
3. maila	48 ikasle
4. maila	44 ikasle
5. maila	56 ikasle
6. maila	78 ikasle
Guztira	429 ikasle

Nafarroan eta estatu mailan ikasleen derrigorrezko eskolatzea lehen hezkuntzako 1. mailan dela kontuan izanda, soilik 41 ikasle matrikulatuta daudenez eta 6. mailan 78 ikasle matrikulatuta daudenez, D ereduko matrikulazioa jaitsi dela ikus dezakegu. Beste zentroetan datuak honako hauek dira: Catalina de Foix (A eredu) 549 ikasle matrikulatuta daude, eta Camino de Santiago CP (A eredu) 494 ikasle. Esan beharra dago nahiz eta ikastola hauek gaztelaniazkoak diren euskara ikasgaia ematen dutela, hau da, haien ikasleek, nahiz eta euskara hitz egiten ongi ez jakin, honen hizkuntzaren

ezaguera daukate. Hala eta guztiz ere euskara hiztunen portzentajea ateratzeko soilik D ereduko matrikulazioari egin diot erreferentzia, eta datu hau lortzeko hiruko erregela sinple bat egin dut; 429 Erreniega + 549 Catalina + 494 Camino= 1472 ikasle osotara. $429 \cdot 100 = 42900 / 1472 = \%29,14$ euskal hiztun lehen hezkuntza.

Bigarren hezkuntzako datuak ateratzeko prozesu berdina jarraitu dut. Zizur Nagusian soilik institutu bat dago, bertan D eredua eta A eredua eskaintzen da. Hona hemen ikastetxe honen matrikulazioa 2013/2014 ikasturterako:

IES Zizur Nagusi DBH		
	D eredua	A eredua
1. DBH	69 ikasle	140 ikasle
2.DBH	75 ikasle	169 ikasle
3. DBH	77 ikasle	146 ikasle
4. DBH	77 ikasle	149 ikasle
1. Batxilergoa	54 ikasle	76 ikasle
2. Batxilergoa	32 ikasle	68 ikasle
Guztira	384 ikasle	748 ikasle

Aurreko teknika erabilia; $384 \text{ (DBH)} + 748 \text{ (IES)} = 1132$. Honetaz, $384 \cdot 100 = 38400 / 1132 = \%33,9$ euskal hiztun bigarren hezkuntzan.

Azkenean Zizur Nagusiko euskal hiztun ikasleen portzentaje totala bien emaitzak elkartzea izango zen; $1472 + 1132 = 2604$ ikasletik, $429 + 384 = 813$ euskal hiztun ikasle, hau da, %31,22.

Bukatzeko Nafarroan dagoen portzentajearekin konparatzea gustatuko litzaidake, hezkuntza batzordeak egin duen Nafarroako 2013/2014ko hezkuntza sistemaren informetik datuak hartuta ikus dezakegu Zizur Nagusiko egoera Nafarroarekin alderatuta hobea dela, Nafarroako portzentajea % 23,78 da eta;

	G + A eredia	D eredia
Haur hezkuntza	%37,63	%25,46
Lehen hezkuntza	%45,87	%27,02
Bigarren hezkuntza	%63,70	%24,07
Batxilergoa	%72,68	%22,98
Guztira	%54,69	% 23,78

Aipatzekoa da ere Zizur txikian dagoen beste ikastola pribatu bat. Ikastetxe honen datuak ez ditut portzentajeetan sartu, ez baitago Zizur Nagusian, ordez ez dakigu zehazki ikasleen artean zenbat bizi diren Zizur Nagusian. Honetaz aparte interesgarria iruditzen zait ikastetxe honen ezaugarriak aipatzea euskara sustatzen baitu. Ikastetxe honek D eredia eskaintzen du, 3-18 urte bitarteko ikasleak baitan hartzen ditu, hau da, haur hezkuntzatik, batxilergoraino. Ikasle guztien artean 1500 egiten dute. Ikastetxe hau pribatua izanik eta Nafarroan nahiko ospetsua izanik, Iruñeko toki ezberdinetatik ikasle ezberdinak etortzen dira.

Bukatzeko Ipurtargi euskaltegiaren matrikulazioari arreta jarri behar diogu, Zizur Nagusiko AEK, helduen matrikulazioa euskaldunen kopuruaren zati bat baita. 2013/2014 ikasturtean 10 ikasle matrikulatu ziren ikastetxe honetan. Kontuan izan behar dira beste euskaltegiak joaten diren Zizur Nagusiko helduak: AEK, Hizkuntz eskola, IKA, NAPI, Zubiarte euskaltegia, etabar.

2.3. EUSKARA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK

Zizur Nagusian euskara sustatzeko edo oztopatzeko egiten diren ekintza ezberdinei erreferentzia egitea beharrezkoa da euskararen egoera herri honetan ezagutzeko. Hasteko, euskara baldintzatzen duten faktore positiboek erreferentzia egingo diet.

Bi aldetan banatuko ditut euskara baldintzatzen duten faktore positiboak; alde batetik eskola publikoetatik ematen den eskaintza, eta bestaldetik erakunde pribatuetatik aurrera eramaten diren ekintzak. Zizur Nagusiko Udalean euskara eta kultura saila dago, hemen ekintza ezberdinak aurrera eramaten dira euskara sustatzeko eta euskararen eta Euskal Herriaren historia ezagutarazteko. Euskara sustatzen duten beste arloak, udalarekin zerikusirik dutenak, hala nola, langile euskaldun kopurua etabar, behaketa zatian ageriko dira.

Hasteko, Udalean praktikan nabilenez, informazio ugari eskuragarri daukat, horrela bada, euskara saileko arduradunarekin elkarrizketa bat izatea komenigarri iruditu zitzaidan, horrela udalean egiten diren ekintza guztiez berri izango nuen, baina datu demografikoez ere bai. Euskara saila kultur patronatutik zintzilikatzen da, beraz kultur sailaren barruan dago. Sail honetatik 4 talde ezberdinetan banatzen dituzte egiten dituzten ekintza ezberdinak; Haurrak, Gazteak, Helduak eta Adinekoak. Udalean euskara sustatzeko bi helburu daude; batetik euskararen motibazioa eta bestetik euskararen erabilera

eta honen arabera ekintza ezberdinak eskaintzen dira.

Haurren inguruan ekintza ezberdinak sustatzen dira irakaskuntza arloan, kultura arloan eta aisialdian, 3 arlo hauek adin tarte honetan garrantzitsuenak baitira. Irakaskuntzan euskararen erabilera bultzatzeko bi ekintza aurrera eramaten dira udaletxetik; “Euskaraz Mintza” proiektua Erreniega Ikastetxe Publikoan eta “Bertsolaritza Irakaskuntzan” programa, eskola-orduetan. Irakaskuntzan motibazioa sustatzeko 4 ekintza bultzatzen dituzte:

1- Hiru urteko haurren gurasoei eskutitz bat bidali, eskolatzeko garaian nondik norako aukerak dituzten jabetu daitezen.

2- 3 urteko haurren eskolatzeko kanpaina: “Modelo D: Experiencia + Excelencia = Resultados”.

3- Hizkuntzaren transmisio kanpaina

4- “Jarduera artistikoak Erreniega Ikastetxe Publikoan” programa, eskola-orduetan.

Aisialdia kontuan hartuta, haurren motibazioa handitzeko Bideoteka eta fonoteka euskarazko bilduma osatzen dute, “euskaraz merkataritza” programa ere aurrera eramaten dute, euskarazko Zinemaldiak egiten dituzte eta euskarazko produktuen Katalogo bat egiten dute. Bestalde erabilera sustatzeko ekintza hauek sortu dituzte; Pintura eta marrazketa lantegia eta plastika lantegia 4-6 urte bitartekoentzat eta kirol-eskolak eta euskarazko udaleku ezberdinak 6-13 urte bitartekoentzat. Bukatzeko kultura arloan euskararen inguruko motibazioa pizteko 5 programa ezberdin burutzen dituzte; Inauteriak, Kultur zikloa, Herriko festak, Gabonak eta Olentzeron egiten diren ekintza ezberdinak, adin tarte guztientzako ekintza ezberdinak daudenez beranduago azalduko ditut.

Gazteen adin tarte kontuan hartuta, irakaskuntza, kultura eta lagunartea haien bizitzen eremu garrantzitsuenak direla esan beharra dago, horregatik egiten diren ekintzak eremu horietara zuzenduta daude. Hasteko, irakaskuntzan motibazioa ez kentzeko ekintza hauek egiten dira; helduen matrikulazio

kanpaina euskaltegietan eta jarduera artistikoak institutuetan. Aldiz, beste erabilera sustatzeko beste ekintza hauek; Euskarazko produktuen katalogoa eta “Mintzakide” programa. Kultura arloan sartuz, hurrekin bezala Santa Ageda, Olentzero eta Kultur Zikloa egiten dira, ekintza ezberdinak adin talde bakoitzeko. Azkenik, lagunarteko euskararen erabilera sustatzeko “Euskara Merkataritzara” programa eta “Merkataritzan euskaraz” liburuxkaren banaketa aurrera eramaten dira.

Euskara saileko barne dokumentuak helduen adin tartea biztanle kopuru gehiena biltzen duena denez eta euskaldunen kopuru baxuena daukanez, euskara sustatzeko talde honentzako ekintza gehiago prestatzen direla deritzo.

Talde honen esparru inportanteenak administrazioa, familia eta lagunartea dira, eta bigarren mailako esparruak komunikabideak eta kultura dira. Hau kontuan hartuta esparru hauentzat guztientzat, motibazioa eta erabilera sustatzeko ekintza ezberdinak prestatzen dituzte. Hasteko Administrazioan motibazioa pizteko “Udaletxean ere euskaraz!” kanpaina eta euskara ikasteko plana aurrera eramaten dira, ordeztu erabilera handitzeko jakite mailak, lanpostu batzuetan euskara derrigorrezkoa izatea, eta euskaldunon fitxategia , euskaraz egiten diren ekintza ezberdinen lan-tresna, egiten dira. Familia arloan, motibazioa sustatzeko gurasoen matrikulazio kanpaina egiten da eta lagunartean erabilera sustatzeko “euskara merkataritzara” eta “merkataritzan euskaraz” programak aurrera eramaten dira. Aurreko adin taldeetan bezala kulturen euskara bultzatzeko Santa Ageda, Olentzero eta Kultur zikloan ekintza ezberdinak egiten dira helduentzako. Bukatzeko komunikabideen inguruan hainbat komunikabide euskaraz egiten dira udaletik: *Ardui eta Ze berri* aldizkariak. Adinekoen inguruan ez dira ekintza bereziak prestatzen, helduen ekintzatan parte har baitezakete.

Santa Ageda egunean ekintzak urtero aldatzen dira egoera aldatzen baita. 2013 urtean Ilunabarra txistulari taldea, koroa eta Galtzagorri txaranga herrian zehar abesten egon ziren eta bukatzeko afari herrikoia egin zen kultur etxearen aurrean. Inauterietan, aste osoan zehar ekintza ezberdinak egin ziren, kalejirak eta bazkari eta afariak eginez. Gabonetako programari dagokionez, 2013/2014ean kultur etxean antzerki, kontzertu, txokolatada, Olentzero kalejira

eta errege magoen kalejira aurrera eramán ziren. Bukatzeko Zizur Nagusiko festetan, 4 egun irauten dutenez egunetan zehar ekintza asko aurrera eramaten dituzte adin talde guztientzat, goizetan haurrentzako jolas-jarduera ezberdinak egiten dira, arratsaldean bigantxak daude eta gauean DJ edo kontzertu ezberdinak egoten dira. Ekitaldi hauek guztiak euskararen presentziaz bustitzen dira, bai kontzertuak, bai jolas-jarduerak euskaraz izaten baitira.

Bestalde, Udalean euskararen ezagupenaren aldeko datuak lortu ditut, politikarien artean 17 zinegotzi daude, zinegotzi hauen artean 4 euskaldunak dira, beraz %23,53 euskalduna da. Enplegatuen artean, 100 langile dira, hauetatik 25 euskaldun daude, beraz, langileen artean %25 euskalduna da. Udalaren barruan ahozko erabileraren inguruan frogatu daitekeen gauza bakarra harreran dauden langile euskaldun batzuek, 3 hain zuzen ere, “Nirekin euskaraz” adierazlea daukatela haien mahaletan. Erabilera idatzian Udaletxearen barruko eta kanpoko errotilazio eta seinaleztapena neurri handian euskaraz eta gaztelera idatzita daude. Bestalde inprimatzen diren zigilu eta dokumentu guztiak bi hizkuntzatan idatzita daude, baita biztanleriari ematen zaion informazioa ere.

Hezkuntza zentroetan sartuz, lehen adierazi dudán bezala, ikastola publiko bakarra dago D eredua ematen duena, Erreniega IP, eta 2 lehen hezkuntzako ikastetxe beste eredu batzuekin. Institutuei dagokionez, Zizur Nagusian zentro publiko bakarra dago, Institutu honek A eta D eredua eskaintzen du. Bukatzeko haur eskolei dagokienez, zentro publiko bat dago, A eta D eredua eskaintzen duena, bestetik 3 haurtzaindegi pribatu daude. Haur eskolatik batxilergoraino eskaintza ematen duen zentro bat ere dago; San Fermin ikastola, D ereduan ematen dena, esan beharra dago zentro hau ez dagoela Zizur Nagusian, Zizur txikian baizik.4399

Zentro publikoekin bukatzeko Zerbitzu Sozialei buruz hitz egin beharra dago. Zerbitzu honetan ez dago euskarazko eskaintzarik, dituzten 4 programak gazteleraz zuzenduta daude, euskaraz hitz egiten dakien pertsona bakarra administrazioaz arduratzen den emakumea delako. Halaber, egiten diren ekintza ezberdinak, lanbide soziala, elikagai bankua, etabar. ere gazteleraz daude. Zerbitzu honen menpe dagoen atal bat gaztetxea da. Hemen gazteei zuzenduta dauden ekintza ezberdinak egiten dira, baina euskarazko eskaintzarik ez dago. Esan beharra dago zerbitzu honetatik laguntza asko jaso dudala nire proiektua egiterako unean, inkestak pasatzen lagunduz eta talde biltzarra egiteko gela bat utziz, hau da, euskara sustatzeko arazorik ez dute, baina haiek ez dute euskarazko ekintzarik eskaintzen.

Udaletik Kirol saila ere daukagu, bertan genero ikuspegiarekin lan egiten da, baina ematen diren ekintza guztiak gazteleraz ematen dira. Euskal munduarekin erlazionatuta dagoen kirol bat eskaintzen da polikiroldegian; esku pilota, baina nahiz eta euskal kulturarekin erlazio zuzena daukan kirola izan, gazteleraz ematen da. Bestetik Adoi fundazioa daukagu, bertan futbola, saskibaloia eta atletismoa egiten da, fundazio hau udaletik kanpo dago eta eskaera guztia gazteleraz dago.

Gizarte Zerbitzuetatik, hain zuzen ere gaztaroaren programatik, gaztetxe bat martxan jarri zen, bertan gazteek aisia pasatzeko lekua izateko aukera eman zieten eta bertatik gazteentzako ekintza ezberdinak burutzen dira. Gaztetxearen papera gazteekin azpimagarria da, Zizur Nagusian ospetsua den zentro bat da eta aurrera eramaten dituzten ekintzak ere bai. Euskararekin lotuta ez dago eskaintzarik, ekintza guztiak gazteleraz egiten dira, eta langileen artean euskaldunik ez dago, beraz harrera gazteleraz izaten da baita ere.

Elkarte pribatu ezberdin daude euskara bultzatzen dutenak Zizur Nagusian. Lehenengo, kulturarekin erlazionatuta daudenak Dantza Taldea eta

Joaldun Taldea daude. Bi talde hauek Euskal Herriko folklore eta kultura irudikatzen dute, eta ez euskara hizkuntza preseski, baina esan beharra dago, Euskal Herriaren hizkuntza euskara dela, horrela bada, batak bestea elikatzen du, Euskal Herriko kultura sustatzean, euskara sustatzen dela pentsatzen dut. Beste alde batetik, hezkuntzara bideratua, Ipurtargi AEK euskaltegia dago, zentro honetan euskara ez dakiten pertsoneri hizkuntza erakusten diete, normalean pertsona helduei zuzenduta, baina ez dago adin mugarik. Bestalde, Garrazta elkarte eta Santa Ageda kolektiboa daude, bi erakunde hauek euskarazko abestiak lantzen dituzte, eta kalean zehar, festa egunetan edo une berezietan, kanta hauek abesten dituzte. Bukatzeko Zizur Nagusian talde feminista bat eratu da duela gutxi, emakume hauen helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea da, baina euskaldunak direnez haiek egiten dituzten ekitaldiak euskaraz izaten ohi dira, horrela ere euskara bultzatuz.

Azkenik komunikabideen inguruan hitz egingo dut. Irratiek euskarazko eskaintza ematen dute, bai kate lokalek bai autonomikoek ere. Honen adibide euskal irratia, info zazpi irratia eta ... dira. Internet eta sare sozialei aipu eginez, euskara eskaintza ematen dutela esan beharra dago, Twitter, facebook, eta bestelako orrialdeak euskara eskaintzen dute, adibidez *Sorginkale bakaneta* liburutegi libertarioa, edo aurrerago azalduko ditudan komunikabide ezberdinak. Esan beharra dago euskarazko eskaintza, nahiz eta existitu, oso txikia dela gaztelerazko eskaintza kontuan hartuta, egia da ere estatu mailan egiten direla eta euskaraz hitz egiten duten portzentajea gaztelerarekin konparatuz txikiagoa dela.

Historikoki euskara mantendu duen erakunde bat eliza izan dela esan beharra dago, baina herri honetan dauden eliza eta parrokia ezberdinak ez dira euskaldunak, ez daukate euskarazko abestirik ezta apez euskaldunik ere, horrela bada, herri honen kasuan ez du ezta euskara mantentzen euskara oztopatzen ere.

Euskara sustatzen duten faktore positiboez hitz egin eta gero faktore negatiboen inguruan hitz egiten beharra dugu. Historikoki, ezagutu dugun moduan hainbat partidu politiko euskara mantentzearen aurka egon dira, euskararen inguruko ekintzei diru-laguntza kenduz, edo euskara eskaintzen ez dituzten zentroei diru-laguntza gehiago emanaz. Bestalde, euskara bultzatzen duten ekintza pribatuei oztopo asko jarri dizkiote. Nafarroako Gobernua honen adibidea da. Hemen, Zizur nagusian, partidu eskuindar batek gobernatzen du, UPN, eta bere ideologia kontuan hartuz euskara sustatzearen alde ez dagoela esan dezakegu, beraz euskara zabaltzearen kontra ekintza ezberdinak egiten ditu, hala nola, AEK elkarteei diru-laguntza kendu.

Bestaldetik telebistan agertzen den euskarazko eskaintzarik ez dago, TDT jarri baino lehen euskal telebista euskaraz ikus zitekeen, baina telebista mota hau jartzerako momentuan Nafarroako Gobernutik euskarazko telebista katea ez zela jarriko esan zen, horrela, momentu honetan telebista soilik gazteleraz edo ingelesez ikus daiteke, kontuan izan behar dugu TDT alde batera utzita, antenatik oraindik ETB1 ikus dezaketela, euskaraz dagoen katea.

Bukatzeko Zizur Nagusiko komertzioetan ez da gauza handirik ikusten euskaraz, kafetegietan, dendetan, gazteleraz egoten dira izenburu eta idazki asko, gainera komertzio hauen izenak askotan gazteleraz izaten dira.

2.4. ALDIZKARIAK ETA BLOGAK IKERTZEN

Zizur Nagusiko lan komunitarioa aztertzeke eta zehazki euskararen egoera aztertzeke, herri honetako komunikabideak nola egituratuta dauden ikertzea ezinbestekoa da. Esan beharra dago Zizur Nagusiko Udalean proiektu komunitario asko bultzatzen dituztela, haien artean kultura garatzeko proiektuak. Gainera Zizur Nagusiko populazioaren artean mugimendua sortzen hasten da eta hainbat ekintza sortu dituzte bizilagunen eta asoziazio ezberdinen partetik.

Udalari dagokionez, Zizur Nagusiko populazioarekin komunikatzeko hainbat modu dauzka. Hasteko, web orri propioa du: hemen, udalaren informazio orokorra eta funtzionamendua agertzen da, eta udalak martxan jartzen dituen komunikabide ezberdinak ere agertzen dira. Udalak bi aldizkari (bata propioa eta beste udal ezberdinak osatutakoa), berdintasun berrien pdf orri bat eta blog bat eramaten ditu; *Ardui* aldizkaria, *Ze Berri* aldizkaria, *sabias que?/ba al dakizu?* pdfa eta *Zizurarte* bloga.

Hasteko *Ardui* aldizkaria udalak daukan komunikabiderik indartsuena da. Urtean zehar 3 aldizkari ateratzen dituzte, hau da, 4 hilabetetan aldizkari bat. Aldizkari hau kultura sailaren barruan egiten da, baina ez ditu soilik kultur gaiak jorratzen, udalaren sail bakoitzeko leku bat gordetzen du, horrela berdintasun saila, kirol saila eta hezkuntza sailek lekua dute aldizkari honetan. Aldizkari honetan udaletik sustatzen diren ekintzak ageri dira, halaber, Zizur Nagusian gertatzen diren berriak agertzen dira. Euskararen sustapenak badu bere txokoa, aldizkariaren sail bat soilik euskararentzako uzten baitute. Euskararen saila, aldizkariak duen 8 sailetatik handienetarikoa da 2 orrialdez osatua 3. postuarekin eta kultura sailak 1. postua okupatzen du 7 orrialderekin. Esan beharra dago kultura sailean ez dela euskararen inguruan mintzatzen. Nahiz eta komunikabide hau elebiduna izan, gaztelerak, euskarak baino leku gehiago dauka. Horrela, gazteleraz agertzen den horri bakoitzeko euskarari horri erdia

dagokio.

Ze Berri? aldizkariari dagokionez, lehen esan bezala udal ezberdinek parte hartzen dute, hau da, Ze Berri Uharte eta Esteribaren Mankomunitate zerbitzuak kudeatzen du, baina Nafarroako 30 udal dira sustatzaileak. Aldizkari honen helburu nagusia euskara sustatzea da, bai euskararen informazioa zabaltzea, bai euskal kultura zabaltzea ere. Aldizkari honetan 30 udalerrri hauetan egiten diren ekintza kulturei buruzko informazioa ere ematen da. Aldizkari hau hilean behin ateratzen da, eta lehen esan bezala euskararen inguruan hitz egiten du. Nahiz eta euskaraz eta euskal kulturaz hitz egin euskaraz eta gazteleraz idatzia dago, baina gaztelerazko idazkiak dira nagusi. Herritarrei ailegatzeko Zizur Nagusiko Udalaren web orrian jartzen dute, eta paperean ere Zizur Nagusiko bizilagun guztiei etxera bidaltzen zaie.

Udaleko kultura sailetik erabiltzen den beste komunikabide bat dago: blog bat egiten da eta bertan udaletik egiten diren kultur ekintza guztiak agertzen dira. Blog hau egunero berritzen da, ekintza berriak sartuz. Esan beharra dago egiten diren kultura ekintza batzuk euskara sustatzeko egiten direla, eta horrela ageri dira blogean. Web orri hau elebiduna da, euskaraz edo gazteleraz irakur daiteke osorik.

Komunikabide publikoekin bukatzeko, berdintasun sailetik udaleko web orrian, berdintasun arloarekin zerikusirik duten berri ezberdinak jartzen dituzte, komunikabide hau *¿Sabias que?/Ba al dakizu?* deitzen da. Aldizkari honetan nahiz eta euskararen inguruan hitz egiten ez duten, euskaraz eta gazteleraz idazten dute, eta berdintasuna zeharkako gai bat dela kontuan izanik euskaraz idazteak euskararen sustapena dakar.

Herritarren partetik herrian gertatzen denaz berri emateko hainbat komunikabide sortu dituzte, hain zuzen bi, *Al revés* aldizkaria eta *ZizurArdoi* aldizkari birtuala. Bi komunikabide hauek ez dira euskara sustatzeko baizik eta

herrian gertatzen diren berriak igortzeko.

ZizurArdoi aldizkari birtualari dagokionez, bere orrian ikus dezakegu web orri ez instituzionala dela, udaletik zerikusirik ez duena eta ideologia politikorik gabekoa dena. Zizur Nagusiko herritarrek sortu duten aldizkaria dela eta bere helburu bakarra herrian gertatzen diren berri, ekintza edota gertaerari buruz informatzea dela. Horrela bada, aldizkari hau soilik gazteleraz idatzita dago, populazioaren edonork idatz dezake aldizkari birtual honek daukan sail batean, *“tu opinión nos importa”* deitzen dena, baina idazki guztiak gazteleraz idatzita daude, izan daiteke euskarazko idazkirik onartzen ez delako edota inork euskaraz bidali ez duelako, ezin izan dut informazio hau lortu.

Bukatzeko *Al revés* aldizkaria diru laguntza jasotzen duen enpresa batek egiten du, aldizkari honek udalean egiten diren ekintzak publikatzen ditu, baita herritarren iritzi artikulua ere. Nahiz eta udaleko informazioa eman enpresa pribatu batek egina da, baina lehen esan dudana bezala diru laguntza publikoa jasotzen du aurrera jarraitzeko. Aldizkari hau gazteleraz idatzita dago, eta orrialde bat euskaraz, normalean euskararekin zerikusirik ez duen gai bat jorratzen dute. Hilero ateratzen den aldizkari bat da, eta herritar guztiek euren etxeetan jasotzen dute ale bat. Aldizkari honen orrialde kopurua ale batetik bestera aldatzen da, betiere Zizur Nagusian egiten diren ekintza ezberdinak jasotzen ditu eta hilabete bakoitzean ez dira kopuru berdinekoak. Hala ere, 13 orrialdetik 17 orrialde bitartera izan ohi ditu.

Aurretik esan dugun bezala, *Sorginkale bakaneta* liburutegi libertarioa ere euskara bultzatzen duen komunikabidea daukagu. Bertan euskararen inguruan dauden intereseko albiste ezberdinak argitaratzen dituzte.

2.5. BEHAKETAREN EMAITZAK

Lehen esan bezala, behaketak 3 hilabete iraun du, martxoak 1etik maiatzaren 31raino. Hilabete hauetan hainbat datu jaso ahal izan ditut euskal kulturaren inguruan, eta zehazki euskararen inguruan:

Hasteko Udalean euskararekiko errespetu handia dago, kartel eta idazki guztiak euskaraz eta gazteleraz idatzita daude, hala ere euskaldun kopurua ez da oso handia edo hori dirudi gaztelera normalean entzuten delako.

Agurrak normalean euskaraz entzuten dira, baina elkarrizketak gehienetan gazteleraz izaten dira, honek ziurtatzen du lehen planteatu dudak hipotesia; helduen artean euskalduna sentitzen dena baina euskaraz hitz egiten ez dakien jende asko dago, nire euskaldunaren definizioarekin bat ez dator, baina nahiz eta euskaldunak ez izan, euskara sustatzen duten pertsonak dira.

Nik, praktikak egin ditudan sailean, 2 langileak euskaldunak ziren, batek euskaraz hitz egiten zekien eta besteak ez, haien artean euskaraz agurtzen ziren, eta nirekin euskaraz hitz egiten zekiena euskaraz komunikatzen zen.

Berdintasun eta kultura sailean ekintza asko egiten dira euskal emakumean ikustarazteko, hau da, euskara eta emakumeen inguruan. Ekintza hauen artean, Hitzak eta Badira bagara dokumentalen proiektioak daude.

2.6. TALDE BILTZARRAREN EMAITZAK

Hurrengo orrialdeetan Zizur Nagusiko populazio gaztearekin, bertako euskararen egoeraren inguruan eztabaidatzeko, sortu genuen talde biltzar batean agertutako gai ezberdinen inguruan analisi bat egingo dut. Beste alditan esan bezala, nire lanaren atal hau oso garrantzitsua da esku-hartze atala baita eta nire helburua Zizur Nagusiko gazteriak osatzen duen komunitateari hurbiltzea delako. Hurbilketa hau euskara hizkuntzarekin egingo dut, hizkuntza identitate bat eraikitzea ahalbidetzen duelako. Lehendik inkesten emaitzei buruz egin dudana analisiarekin eta orain egingo dudana talde biltzar honetatik atera zen debatearen analisiarekin, euskararen benetako egoera Zizur Nagusian ezagutuko dut, bai eta nola ikusten duten haien biztanleek eta zer aldatu nahi duten ere.

Talde biltzarra 5 pertsonekin aurrera eraman nuen; 3 neska eta 2 mutil, 18 eta 23 urte tarteko pertsonekin. Pertsona hauek mugimendu herritar ezberdinetan parte-hartzen dute, niretzat komunitatearekin lan egiteko gogoak izatea beharrezkoa baitzen. Garrantzitsua da aipatzea talde biltzarra gazteleraz izan zela, parte-hartzaile batek euskaraz ez baitzekien hitz egiten, eta guztiak gazteleraz hitz egiten baitzekiten. Nire nahia euskaldunak eta euskaldunak ez diren kopuru berdina egotea zen, horrela euskaldunen eta euskaldunak ez diren bi ikuspuntuak aztertu ahal izango bainuen, azterketa hau interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zaidalako. Nahiz eta eskakizun hau bota, soilik euskalduna ez zen pertsona bat lortu nuen, hala eta guztiz ere populazio osoaren lagina hartu dudala uste dut, eta ez soilik zati batena. Horrela bi aldekoen gogoeta sustatu zen. Debateak ordu bat eta 13 minutu iraun zuen, baina oso luzea ez izan arren, gai ezberdinak atera ziren. Debatearen hasieran eta bukatu baino lehen isiluneak maiz egon ziren, baina konfiantza hartu zutenean debatea askoz arinagoa izan zen eta gai batetik bestera joaten ziren nik, moderatzaile bezala, bertan parte hartu gabe. Azkenik, parte-hartzaileak nekatuta ziruditela ikusita, isiluneak berriz agertzen hasi baitziren eta gai aski

ukitu zirela ikusita, talde biltzarrari bukaera ematea erabaki nuen. Bukaera eman eta grabagailua itzali eta gero, niregana hurbildu eta galdera ezberdinak egin zituzten komunitatean lan egiteko tresna ezberdinak eskatuz, gero azalduko dudan bezala.

Debate guztietan bezala, honetan gaiak joan eta etortzen ziren, ordenarik jarraitu gabe eta elkarren artean nahasten, baina analisisa egiteko sortu ziren 4 gai nagusiekin lan egingo dut; euskara Zizur Nagusietako kaleetan, euskara Zizur Nagusitik kanpo, euskara eta komunikabideak, euskara eta Zizur Nagusiko Udala eta bukatzeko, behin grabagailua itzalita, komunitate batean lan egiteko erabiltzen diren tresna ezberdinak.

Hasteko Zizur Nagusiko kaleetan, euskarak zuen presentziaz hitz egin zen, bertan bi parte-hartzaile ikuspuntu bat zuten, haien ustez Zizur Nagusian, ze giroetan mugitzen zinela kontuan izanda, euskaraz komunikatu ahal zinen, baina besteak ez zeuden haiekin ados, edozein egunetan kalera atera eta bertan soilik gaztelera entzuten zela esan zuen batek besteak baietza esanez segidan:

Si tú te relacionas con una cuadrilla que sabe euskera pues te puedes comunicar, pero al final sales a la calle y te pones a escuchar y solo oyes castellano.

Gai honekin eztabaida sortu zen, baten esan zuen bezala:

En Zizur Mayor hay dos extremos; están los del opus y están los abertzales, depende de donde vayas oírás más euskera o castellano.

Gai honen inguruan ez zen adostasunera iritsi, parte-hartzaile batzuk euskara Zizur Nagusiko kaleetan presentzia zeukala uste zuten eta beste batzuk ez, hemen ikus dezakegun moduan:

Yo cuando voy a comprar el pan, como sé que el panadero sabe euskera le hablo en euskera, la cosa es que tienes que informarte.
(Parte-hartzaile 1)

Yo por ejemplo creo que en la calle se oye mucho más castellano.
(Parte-hartzaile 2)

Atal honetan soilik gauza batekin egon ziren ados, errespetatu behar zela bakoitzak nahi zuen hizkuntzan komunikatu nahi izana, batek esaldi hau esan baitzuen:

Lo que tenéis que entender es que si yo considero el euskera como mi idioma, pues si quiero hablaré en euskera en la calle.

Taldeko beste parte-hartzaile guztiek baietza eman zuten esaldi honi.

Talde Biltzar honetan komunikabideen, pertsonen iritzietan, eraginaren inguruan hitz egin zen. Gaia, euskaraz komunikatzeko zaitasunarekin bat etorri zen, hain zuzen ere Zizur Nagusian komunikatzeko zaitasunarekin. Elkarrizketa suertatu zen parte-hartzaile batzuek esan baitzuten euskaraz komunikatu ezina, edo zaitasunarekin komunikatzea, komunikabideen errua zela, komunikabideek euskararen inguruan ematen zuten irudiari leporatzen ziotelako. Momentu batean pertsona batek esan zuen:

Mis abuelos por ejemplo se creen todo lo que ven en televisión, y pues si en las noticias dicen que un acto a favor del euskera está mal, pues ellos no van a ir.

Esaldi honek debatea ekarri zuen, talde guztia komunikabideen inguruan iritzi berdina ez baitzuen, batzuk jarrera hau defendatu zuten eta beste komunikabideek hizkuntza babesteko jarrera defendatu zuten:

Ahora, en Twitter por ejemplo, tenemos mogollón de información y noticias sobre actividades que promueven el euskera y todo, para mí que los medios ayudan más que obstaculizar.

Teknologia berrien garapenaren inguruan hitz egin zen debatean, hain zuzen ere, populazioa informatzeko gaitasunaren inguruan. Nola sare sozialek, bide ezberdinek, ez soilik estatu-mailakoek, populazioari informazioa emateko aukera ireki duten. Gai hau ez zuen debaterik sortu, talde guztiak informazio iturri gehiago izatea, informazioa askotarikoa izatea ekartzen zuela pentsatzen zuten. Taldeko parte-hartzaile batek hau esan zuen aurreko gaiarekin lotuta:

Hoy en día no nos podemos quejar, vamos hay un montón de medios alternativos, si no te gusta lo que te dicen en un periódico puedes ir a un blog o lo que sea e informarte de lo que pasa realmente... antes era mucho peor, solo había un periódico y un canal de televisión, o sea que solo o vivías la noticia o te tenías que creer lo que te contasen.

Nahiz eta parte-hartzaile guztiak euskararen eta Zizur Nagusiko euskararen egoeraren inguruko iritzi berdina ez izan, arlo batekin talde osoa

ados egon zen; sare sozialen ondorioz jendartea informazioa lortzeko aukera gehiago lortu zuela:

Hay medios de comunicación de los dos bandos, hay variedad, o sea, tu puedes informarte si quieres.

Komunikabideen inguruan sortu zen debatearen ondorioz, beste gai batera salto egin zuten; Udalak eta Gobernuak euskarazko komunikabideak sustatzeko egiten zen lana. Taldearen zati batek euskara zabaltzeko oztopoak jartzen zituztela esaten zuen eta beste zati batek komunikabide alternatiboak sustatzen zituztela esaten zuen. Gai honek Nafarroako Gobernuak edo Zizur Nagusiko Udalak euskara sustatzeko egiten duten lanaren inguruan hitz egitea ekarri zuen, beste Udalekin konparatuz.

Udalek eta Nafarroako Gobernuan, komunikabide alternoekin, hartzen duten paperaren inguruan, iritziak, debate guztietan bezala, desberdinak ziren; taldearen zati batek komunikabide hauen zabalketa oztopatzen zutela pentsatzen zuen eta beste zatia ezetz pentsatzen zuen. Talde biltzarraren zati honetan politikaz eta ideologia abertzaleaz hitz egin zen:

Por ejemplo desde Gobierno de Navarra se han cerrado cuentas de Twitter y páginas web, como Ateak Ireki, y esto se ha hecho solo porque desde el Gobierno no interesa que la ciudadanía sepa que está pasando realmente en Navarra. (Parte-hartzaile 1)

A ver pero ¿Qué tiene que ver ahora lo de Ateak Ireki? eso no era una página que hablase sobre el euskera ni nada, era una página a favor de los presos y así. (Parte-hartzaile 2)

Ateak Ireki hablaba sobre todas las noticias que pasaban en Navarra, sí había noticias de desalojos y todo, se hablaba de lo que no se hablaba en otros medios. (Parte-hartzaile 3)

Yo creo no hay que mezclar cosas, pero por ejemplo una prueba de que desde Gobierno de Navarra se está intentando frenar el euskera es que, por ejemplo, han quitado las ayudas a los Euskaltegis. (Parte-hartzaile 4)

Elkarrizketan ikus dezakegun moduan gaiak alde batetik bestera salto egiten dute, talde biltzar guztietan bezala, baina ikus dezakegu nola taldearen iritzia ez den berdina. Parte-hartzaile 4.aren ekarpenaren ondorioz, gaia berriz Zizur Nagusiko Udalaren euskararen inguruko lanera zuzentzea egokiena iruditu zitzaidan, bestela debatea beste leku batetik joango zela uste bainuen. Honen inguruan, talde osoaren iritzi orokorra Udalean euskararen inguruan lan egiten zela zen, baina beste zonalde batzuekin konparatuz gauza batzuk hobetu zitezkeela.

Hombre pues sí, yo por ejemplo sé que en fiestas se organizan actividades en euskera y que por ejemplo el Olentzero lo montan desde el ayuntamiento, pero luego por ejemplo te vas a preguntar algo al Ayuntamiento y te tienes que comunicar en castellano. (Parte-hartzaile 4)

Yo sé que hay una sección de euskera dentro del ayuntamiento, y en otros ayuntamientos no sé cómo estará, pero en pamplona creo que no tienen. (Parte-hartzaile 3)

Yo que por ejemplo tengo una casa en un pueblo de la sakana, sé que todas las actividades que se hacen allá están en euskera, vamos que aunque sea algo de deportes se hace en euskera o lo que sea, vamos que no se necesita una sección, y creo que se trabaja mejor, pero también sé que aquí hay gente que no entiende el euskera y allá lo entiende todo el mundo. (Parte-hartzaile 1)

Debatean beste gai bat jorratu zen; nolakoa zen euskararen egoera beste leku batzuetan, bai beste komunitate erkidegoetan baita Iparralden ere. Talde Biltzarrean parte hartu zuen guztiak beste lekuetan hemen baino euskara gehiago hitz egiten zela esan zuen, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren inguruan pentsatuz. Taldeko pertsona batek hau esan zuen:

Por ejemplo en Donosti tu sabes que puedes hablar en euskera en el supermercado o en bares o donde sea porque sabes que te van a entender, entonces pues es más fácil que se oiga el euskera o te facilita que lo hables con la cuadrilla o lo que sea, porque aquí hay si quieres hablar en euskera con la cuadrilla luego vas a pedir algo a un bar o a comprar algo o lo que sea y tienes que andar cambiando, pues eso como que te dificulta.

Esaldi honi beste batek hau erantzun zion:

Ya pero en el País Vasco en euskera es un idioma oficial y es normal que la gente lo hable, pero aquí no es oficial y hay muchas personas que no sabemos hablar en euskera, no podéis comparar la situación porque allí todo el mundo sabe hablar en euskera y castellano, aquí no y si hay gente que no sabe euskera pero todo el mundo sabe hablar castellano habrá que comunicarse en castellano.

Esaldi honekin jendea urduritzen hasi zen, nire jarrera arreta mantentzearena zen, kontuan izanda, errespetu falta bat ikustean debatea moztu beharko nuela. Zorionez ez zen errespetu faltarik egon, elkarrizketak horrela jarraitu zuen:

Por ejemplo en Iparralde, aunque el idioma oficial sea el francés, yo creo que hay más gente que habla en euskera que aquí, vamos yo cuando voy allá me comunico en euskera y la gente me entiende, aunque igual es porque no se francés... (barreak). (Parte-hartzaile 3)

Yo también en los pueblos del norte se habla también en euskera en todas las tabernas o en la calle, en pueblos de Navarra, y ahí el idioma no es el oficial tampoco. (Parte-hartzaile 1)

Yo creo que es porque aquí, en la zona media de Navarra, hay a mucha gente que no sabe y no le interesa aprender el idioma y prefiere comunicarse en castellano, yo creo que es un poco depende de la gente, yo por ejemplo no se euskera, pero si alguien me habla en euskera en el trabajo pues busco a la compañera que sí sabe para qué le atienda, pero en otros sitios te dicen que no entienden o lo que sea, yo por lo menos eso lo he visto, y igual eso a la gente le frena a hablar en euskera. (Parte-hartzaile 2)

Hemendik aurrera honen inguruan bueltak eman zituzten, baina azken finean askok berdina esaten zuten, Nafarroan euskararen egoera beste komunitate erkidegoekin konparatuz txarragoa zela, hau da, gutxiago hitz egiten zela kaleetan eta tabernetan. Bat ez zegoen ados honekin, hau esanez bere iritzia aurkeztu zuen;

Estáis diciendo como que en Zizur y en Iruña no se habla ni nada en euskera pero depende de la zona que vayas sí que te puedes comunicar, si vas de juerga por lo viejo de Iruña, en casi todos los bares, yo hablo en euskera y me entienden.

Honen inguruan debateak jarraitu zuen, guztiek haien jarrera mantendu zuten, arrazoi berdinak errepikatuz. Azken finean gai honekin taldea ez zen ados jarri eta nire ustez, guztiak bere oinarrizko jarrerarekin geratu ziren. Geroz eta gehiago kostatzen zen elkarrizketa mantentzea, isiluneak agertzen hasi ziren berriro eta esaten zutena aurretik hitz egindako gaiei buruz errepikatzen zuten. Nekatuta zeudela zirudien eta nire ustez behar nuen informazio aski neukan, alegia euskararen egoeraren inguruan hitz egin zen, nahiz eta Zizur Nagusian ez zentratu, komunikabideen inguruan debate luzea ere egon zen, eta azkenik Udalaren paperaren inguruan hitz egin zen; bai Udalak aurrera eramaten dituen ekintzei buruz, bai Zizur Nagusiko Udala beste Udal batzuekin konparatuz.

Nekatuta zeuden galdetuz eta baietz erantzunez gero, Talde Biltzarra bukatzea erabaki nuen. Bukatzeko eskerrak eman nizkien, haiei esker nire lana aurrera eraman ahalko nuela argituz. Talde Biltzar osoan zehar 3 gai hauek joan eta etorri ziren, gai batetik bestera salto eginez eta berriz aurreko gaira bueltatuz, baina azken finean aurreko orrietan azaldu dudana hitz egin zen laburpena izan daiteke.

Bukatzeko, grabagailua itzali eta parte-hartzaileak haien gauzak hartu eta niregana hurbildu ziren. Talde Biltzarra gustatu zitzaizela esan zidaten eta batek hau galdetu zidan lan komunitarioa egiteko tresnen inguruan, berak talde herritar batean parte hartzen zuelako eta euskara bultzatzeko hainbat ekintza prestatzen ari zirelako. Beraren kezka populazioari hurbiltzea zen eta

populazioak parte hartzea haien ekintzetan. Nire harridura handia izan zen, nire proiektua komunitateari hurbiltzea zen, baina honek aurrera pauso bat ematea ekartzen zuen, Zizur Nagusiko talde herrikoi batek nire laguntza eskatzen zuen Zizur Nagusiko gazteekin euskararen inguruan lan egiteko. Haiekin beste egun batean bilduko nintzela esan nien eta horrela hobeki azalduko niela komunitate batekin lan egiteko tresna ezberdinak. Beste parte-hartzaileek eragozpenik ez banuen haiek ere interesaturik zeudela esan zidaten, horrela momentu horretan ezer egiteko gauzarik ez bazuten gelan geratu ginatekeela esan nien eta horrela honen inguruan hitz egin.

Aurreko kurtsoan Gizarte Lan Komunitario ikasgaiari egin genuen “tresna-liburua” usb batean neukan, komunitate batean lan egiteko tresna ezberdinak pilatzen dituen dokumentu bat. Horrela Gaztetxean zegoen teknikariari 3 kopia inprimatzea eskatu nion eta haiei eman nien, bestetik azaldu nire lehenengo aldia zela komunitate batekin, gutxienez era autonomoan, baina unibertsitatean beste proiektu komunitario egin nituela. Tresna-liburua asko gustatu zitzaieen eskerrak eman zizkidaten eta bukatzeko nirekin lan egin nahi zuen pertsonarekin beste egun batean gelditu nintzen. Nahiz eta talde herrikoi honekin egingo dudana lana proiektu honetaz kanpo geratuko den, proiektu honen jarraipena izango da, eta etorkizunean talde hauek komunitatean lan egiteko tresna ezberdinak izango dituzte, bai euskara lantzeko edo beste edozein gai lantzeko ere.

